

Irla bat izan ez dadin

Angela Davisekin
gogoeta egiten





HITZAURREA

Bere gaztaroan Euskal Herria zapaldu bazuen ere, bizitzaren zazpigarren hamarkada hasia duela ikusi eta entzun dugu Angela Davis gurean. Etiketa gutxi batzuekin eta esaldi labur batean ezinezkoa zaigu bere ibilbide eta ekarpena definitzea, besteak beste ez dugulako nahi bere nortasuna eta ibilbidea gure nahierara zatikatu. Ikono bilakatu diren hainbatekin gertatu ohi den gisan, parte bati azpimarra egiteko joera dugu, gure behar behinek asetzeko, eta eroso ez zaiguna baztertzeko joera dugu. Angela Davisen bizitzan, borrokan eta pentsamenduan hainbeste dago entzuteko eta ikasteko, ezen justuak ez izateko eta partzial gelditzeko arriskua onartuta egin baikenuen bera Euskal Herrira gonbidatzeko urratsa. Kontraesan txikia, jaso duguna eta berarekin bizi dugunaren aldean.

Gure motibazioa ez zen neutroa, jakina. Bestelako Euskal Herria, bestelako mundua nahi dugunon artean ere ikusmolde eta ideologiak anitzak dira. Nork bere erreferentziak baliatu ditu, bertoko eta kanpoko teoriak ibili ditugu gora eta behera eta praktika eraldatzaile ahalik eta egokiena bilatzeko ahalegina egin dugu. Eztabaida sutu eta, batzuetan, mingarrien bidez egin dugu aurrera eta ez beti elkarrekin. Euskal feminismoaren garapenean funtsezko eragin ideologikoa izan zuten Angela Davisen teoriak. Izan ere, zapalkuntza hirukoitzaren definizioak, artean berritzailea, oxigenoa izan zen Euskal Herrian feminismoa Euskal Herriko askapen nazional eta sozialaren mugimenduaren baitan ulertzen genuen eta ulertzen dugun militante askorentzat.

Sarri gertatzen den bezala, Angela Davisek hitzetara ekarri zuen emakume askok barruan zeramaten. Eta gorputz ideologikoa eman zion, ikur iraunkor bat sortzeaz gain, herri zapaldu askotako emakume langileek beren borroka bideratzeko eta teoria propioak sor zituzten. Orain, txalotzen edo, bederen, ulertzen den hori guztia euskal feminismoaren baitan irabazi beharreko espazioa eta aitortza izan da. Bere ibilbidea eta ikuspegia ez da estatikoa izan, ordea. Oinarritzko ideiak eta betiko helburuak tinko, egoera berrietara eta hurrengo belaunaldiak egindako ekarpenei irekia ikusi dugu

eta Angela Davisen ahotan entzun genuen naturaltasunez, zapalkuntza hirukoitzaren ikuspegia egun darabilgun interseksionalitatearen ikuspegiarekin erlazionatzen. Kontraesanik gabe, ikuspegi hobeago baten xerkan. Halaber, militantzia komunistaren ikuspegi gaurkotua eta, batez ere, kapitalismoaren eta zapalkuntza ororen aurrean ez etsitzeko kemena transmititu digu.

Angela Davisen bisitak olatu moduko bat sortu zuen, ikusmin eta miresmenetik ere bazuena. Egon da erreferentzia ideologiko edota militante gisa eduki duena bizi osoan zehar eta egon da berriki deskubritu duenik. Antolatzaileontzat, olatu horrek lehen plano politikora askotan bazterrerara botatzen diren diskurtsoak, aldarrikapenak eta ikuspegiak ekarri zituela izan da garrantzitsua. Angela Davisen bisitak horretarako aitzakia eman digu. Izan ere, argitalpen honek erakusten digun moduan, euskal emakumeak eta euskal eragileak izan ziren hitza hartu zutenak egun horietan, Davisen babespean, Davisekin solasean. Bilboko elkarriketan aipatu zuen, bere irudia soinean zuela edozer lortzeko gai sentitzen zen neskaren antzera, Angela Davis gurean edukitzeak gure erronkak irudikatzeko eta indarrez bertetzeko arnasa eman digu. Argitalpen honetan euskal emakumeen hitzak jaso ditugu, baina Angela Davisek Euskal Herrian utzi zizkigun hitzen eta aipuen hari batek josita.

Argitalpen honen bidez, Angela Davisekin 2016ko otsailaren 6an Donostian egin genuen saioan Euskal Herriko errealtate eta ikuspegitik esan zirenak jaso nahi izan ditugu. Saioa mugatua izan zen, lekuz, denboraz eta parte hartzeko aukeraz. Liburuxka honetan ahots gehiagori egin diegu lekua. Eta, hala ere, zorionez esango genuke, mugatua jarraitzen du izaten, hemen aipatzen diren gaien inguruan hamaika ahots gehiago daudelako Euskal Herrian. Hau, beraz, ez da bilduma, ekarpena baizik. Eguneroko teorizazio, lan eta eztabaidei egiten diegun ekarpena. Han esan zen bezala, bizi izan zen konplizitate, komunikazio eta ahalmen atmosfera hura ez zedin irla bat izan egiten dugun ekarpena da hau. Gogoetak eta eztabaidak jarrai dezan, irla bat izan ez dadin.



ANGELA DAVIS



LAURA MINTEGI LAKARRA

EHUKO IRAKASLEA

Angela Davis Birminghamen (Alabaman) sortu zen 1944. urtean eta Dynamite Hill auzoan bizi izan zen bere familiarekin, auzo hartara helduta dinamita izena hartu aurretik. Han bizi izandakoak errotik eragin zion.

Bi dira Angela Davisen **ekarpen nabar-menena**.

- a) Batetik, **dominatzailearen begiradari beste begirada bat kontrajarri dio**. Boreretsuak itsusia ikusten duen lekuan, edertasuna ikusten du; nagusiak bazterreko hartzen duena, erdigunean jartzen du; mutu dagoenari ahotsa ematen dio. 1970eko hamarkadan harrotasunez eramaten zuten ile afro harrotua, "*Black is beautiful*" aldarrikatuta.
- b) Bestetik, **zapalkuntza guztiak harremanetan jarri ditu**, bere haragitan bizi izan dituelako zapalkuntza guztiak batera, Angela Davis, beltza, emakumea, komunista eta Pantera Beltza baita. Eta 1997tik aurrera politikoki lesbiana gisa ere agertu izan da. Zaila da pertsona batek bere gorputzean zapalketa gehiago onartzea (elbarritua izatea falta).

Pertsona disekezionatzeko eta borroka guztiak atomizatzeko neoliberalismoak duen estrategiari aurre egin dio Davisek gazte-gaztetatik, eta konpromiso horrek eraman du Critical Resistance erakundea sortzera, Estatu Batuetako Espetxe "Industria" Sistema salatzeraz eta kartzelak desagere daitezela eskatzera, kartzelak baitira beltzen, disidenteen eta txiroen gordetegiak.

Badira elementu batzuk bereziki interesgarriak Angela Davisen borrokan, Euskal Herritik begiratuta batez ere.

Bata da bortizkeriari buruz egiten duen hausnarketa. 1970etan kartzelaratu zutenetik kartzelaren aurkako borrokan inplikatu da Angela. Critical Resistance elkartearen beste bi emakumerekin batera sortu zuen, Rose Braz eta Ruth Wilson Gilmore. Elkartearen helburua da Estatu Batuetako espetxe-industria sistema desagitea.

Berak dioenez, espetxeak ez ditu desagertarazten arazoak, gizakiak desagertarazten ditu.

Eta pertsona batek ez ditu galtzen bere eskubide zibilak inongo egoeratan, ezta kartzelan dagoenean ere, justizia zatiezina delako. Zuk

ezin duzu erabaki nork dituen eskubide sozialak eta nork ez. Eskubideak ez direlako ematen edo kentzen. Ez dira inoren patrimonio. Eskubideak, gizaki bakoitzarenak dira.

Bestea da **iraultza** duen kontzeptua. Angelak dio jokatu behar dugula posible balitz bezala mundua errotik aldatzea. Eta horrela jokatu behar dugula denbora osoan. Berak azaltzen duen moduan, iraultza gauza serioa da, gauza serioena iraultzaile baten bizitzan. Norbait borroka batekin engaiatu egiten denean, bizitza osorako engaiatzen da.

Amaitzeko, gogora ekarriko nuke Angela Davisek feminismoz dioena: "*Feminista naiz eta, beraz, sinisten dut kontraesanak bizitzeaz. Nik sinisten dut kontraesanak produktibo egin behar direla, eta ez edukitzea aukeratu beharra bi aldean artean. Bata aukeratzea ala ez, edo biak aukeratzea*".

Hori da Angela Davisen ekarpena, integritasuna, konpromiso globala, zapalkuntzaren irakurketa osoa. Eta konpromiso horrek ekarri du Euskal Herrira mintzatzera kartzelaz eta emakumeaz, ezkerreko politikaz eta feminismoaz, konpromisoaz eta etikaz. ■

“

Sarri, utopia kontzeptua zentzu negatiboan erabiltzen da, baina, egia esan, ametsik ez baduzu, zure irudimena baliatzen ez baduzu, bestelako mundu bat posible dela sinisten jarraitzen ez baduzu... ziur egon zaitezke kapitalismoak etengabea txikitzen duen munduan giltzapetuta jarraituko dugula. Senidetasun zentzu berria, berdintasun eta justizia handiagoa exijitzen duen mugimendu globala sortzea benetan funtsezkoa dela uste dut”

Angela Davis

ZERGATIK EZ DUGU HITZ EGITEN ZAPALKUNTZA LAUKOITZAZ?



IRATI SIENRA ZENGOTITABENGOA

ERNAIKO KIDEA

Feminismoa ikuspegi iraultzaileetan iraultzaileena da. Harreman eredu guztiak zalantzan jarri, botere harreman guztiak dinamitatu eta, honela, parekidetasuna ez ezik, pertsona eta identitate ororen askapena ere ekarriko duelako. Horregatik egon behar du gure sozialismoak balio feministetan oinarritua. Pertsona aske osatutako jendartea, feminismoan eta justizia sozialean oinarrituta baino ezin daitekeelako eraiki. Zentzu honetan, zeharlerrokotasuna eta identitate anitzen aitortza feminismoaren ekarpen handienetarikoa dira. Baita ertzetan dauden identitateak, identitate periferikoak, zentzora ekarri eta lehentasuna eta ikusgarritasuna ematea ere, borrokaren erdigunean jaratea. Edo borobilera, erdigunerik egon ez dadin.

Herri mugimenduan identitate subalternoko eriek parte hartzeko neurri/bitartekoak sortu behar ditugu. Oraindik ere agenda politikoa gizon zuri, heterosexual eta helduaren arabera eraikitzen jarraitzen dugu. Espazio militanteei begiratu besterik ez dugu: non daude pertsona adinduak? ijitoak? etorkinak? gorak? zenbat ama daude? zergatik askatasun sexualari loturiko aldarrikapenak ez dira lehentasuna? ze espazio edo funtzio ematen diogu gazteriar?

Nire militantzia politikoa zehar, gaztetasuna eta emakumetasuna beti bizi izan ditut oso lotuta. Berezik markatu nauten bi identitate dira. Uste dut ez dela kasualitatea, askotan sentitu naiz zapaldua, gutxietsia eta alboratua emakume izateagatik eta gaztea izateagatik, eta beste askotan, biengatik batera. Batek arrazoa kentzen dit, eta besteak ezagutza. Baten ondorioz, historikoa naiz, eta bestearen ondorioz, ez dakit zer den garrantzitsua. Biengatik sentitu naiz lorontzia. Biei eman zaie paperaren gainean izugarritzko garrantzia, eta beste lehentasun batzuek ordezkatu dituzte errealitatean. Genero eta gazte ikuspegia, eskuorrien azken zatian esaldi gehigarria dira: *“gazte eta emakumeak dira kaltetuenak...”*.

Zorionez, emakume gisa aurrerapauso handiak ikusi ditut. Feminismoak agenda politikoa gogor borrokatutako espazio bat irabazi du. Hainbat eremutan egiten dituen ekarpenak entzun egiten dira, aitortza ematen zaio mugimendu feministari. Emakumeok eremu mistoetan parte hartzeko ditugun oztopo eta zailtasunak ohartuta, espazio seguruez, metodologia berezietatik hitz egiten dugu. Ezker abertzaleko antolakunde desberdinok gure helburu estrategikoen artean kokatu dugu feminismoa. Ernaiko kideok askotan errepikatu dugunez, feminismoa helburu estrategikoen artean kokatzea ez da abizen hutsa jaratea, proiektu zehatza eraiki ahal izateko izanaren eraldaketa barnebiltzen du. Egiten dugun bidearen arabera izango da helmuga, eta feminismoan oinarrituriko sozialismoa eraikitzeko, ezinbestekoa da gure jarduna eta funtzionamendua ere feminista izatea. Konbentzita gaude eraldaketa feminista izango dela, edo ez dela izango eta, berau gugandik hasten bada, gauza asko ditugula aldatzeko. Abizena jarzteak ez gaitu eraldatzen, ezta urte luzetako inertzia ezabatzen ere. Horri ekiten eman ditugu urte batzuk, egiteko asko geratzen baldin bada ere.

“

Esanguratsua da oraindik ere zeinen polemikoak eta korapilatsuak egiten zaizkigun emakumeon parte hartzea eta erabakitze ahalmena bermatzeko neurrien inguruko eztabaidak

Esanguratsua da oraindik ere zeinen polemikoak eta korapilatsuak egiten zaizkigun emakumeon parte hartzea eta erabakitze ahalmena bermatzeko neurrien inguruko eztabaidak. Azkenaldian askotan entzuten ari gara emakumeok *“boterea”* egikaritzen den esparruetan egotea bermatuta, *“botere”* hori geure egingo dugula, eta beraz, egikaritzea feministagoa izango dela. Zoritxarrez, ez da hain erraza, boterea neutroa ez den heinean, *“boteregune”* horietan ere modu asimetrikoan banatzen/hartzen delako, generoaren eta beste elementu askoren arabera. Beraz, emakumeon presentzia ez da bermea: ezinbesteko neurria bai, baina bermea ez. Edozein emakumek ez du ikuspegi feminista bermatzen: feministak egotea da gakoa, ez emakumeak. Eta bestetik, mugimendu parekidea izan nahi dugun heinean, emakumeen parte hartzea bilatu behar dugulako. Bai emakumeena, baita gizon-heldu-zuri-heterosexual ez garen guztion ere, noski. Bada garaia neurri horien inguruan erabakiak hartzeko: kuotak, betoak, lotesleak diren espazio propioak... Tresnak behar ditugu.

Horrez gain, antolakunde mistoetan ikuspegi feministatik eragitea izugarri nekagarria da. Etsigarria da gizonezko (eta zoritxarrez batzuetan emakumezko) kideekin etengabeko borroka txikitzen indarrak xahutzen ibiltzea. Indar horiek zelan kudeatu hausnartzeko eta estrategiak diseinatzeko espazioak behar ditugu. Horregatik, noizean behin (edo behin baino noizean-ago) elkartzeko espazioak behar ditugu, ez terapia hutsa egiteko (horretarako ere bai, frustrazio kolektiboek sendabide kolektiboa behar badute), elkarrekin erabakiak hartzeko baino: zeintzuk diren gure epe labur, ertain, luzeko erronkak; zertan zentratuko ditugun gure indarrak... Ezker abertzaleko emakume feministok gure konspiraziorako espaziotxoak behar dugu, antolakunde bakoitzean zein mugimenduan ondorioak izango dituzten erabakiak elkarrekin hartzeko, guk hartuko ditugun erabakiak. Eta aliantzak, aliantzak ere behar ditugu. Bai gure artean, bai eragile mistoetan jarduten ez duten ezker abertzaleko gainerako feministekin ere. Eraldaketa feminista hau atzera eraginezina izatea geure esku dago, sor ditzagun horretarako beharrezkoak diren mekanismoak!

Barne prozesu horiek epe luzera diseinatu eta jarraipen zorrotza egin behar diegu. Urte hauetan oso gogotsu ekin diegu, baina ilusio hori lausotzeko eta lehen urratsetan geratzeko arriskua dugu: diskurtso aldaketan, iruditegi feministagoan, emakumezko bozeramaileak izatean... Hala izango balitz, beren burua feministatzat duten, baina halako praktikarik ez duten militantez

betetako mugimendua izaten bukatuko genuke, eta horri buelta ematea... bai izango litzateke zaila! Baina aurrera goaz!

Gazte gisa, parte-hartzeko oztopo berberak daukagu (lotsak, inseguritateak, besteek serio ez hartzeko beldurra...). Trukatu "gizona" "helduarekin". Baina eremu *orokorretan* (heldua dena da orokorra, *normaltasunaren* neurria gizona den bezala), gure parte hartzea bultzatzeko neurririk ez da hartzen. Parte hartzea nahi bai, baina espazio eta ekimenak gazteon ezaugarri, interes eta metodologietara egokitu gabe. Gazteak *etortzea* nahi da, ez gazteengana hurbildu. Ikuspegi feminista zeharlerro moduan txertatzen da, baina oraindik ere gazteok eskuorri bukaerako lerroa gara. Gazte izatea, gazte identitatea, landu beharreko problematika duen zeharlerroko ikuspegia ere badelako: emakume gazteak, ikasle gazteak, gazte prekarioak, langabetu gazteak... Esplotatuen artean are esplotatuagoak izan ahal izateko baldintzak gorpuzten dituzten subjektuak. Feminismoak merezitako aitortza irabazi du, baina guri borroka kide diren askok helduen boterearen existentzia ukatzen digute: ez gaituzte sektore edo identitate moduan kokatzen, oraindik helduak ez garen horiek gara (emakumea gizona ez den hori den bezala). Esperientzia gabeak, helduko direnak, *heldutasuna* falta zaienak!

Sistema kapitalista eta heteropatriarkalak berau erreproduzitu eta iraunarazteko prestatzen gaitu, eta arau desberdinak apurtzen dituztenak jazartzeko diseinatu. Kontrol sozialaren parte izateko prestatzen gaitu, zigor juridikoa baino gogorragoa baita mespretxu soziala. Asko dakigu horretaz feministok. Era berean, sistemak helduak baliatzen ditu gazteak neutralizatuak mantentzeko. Mugimendu iraultzaileetan asko goraipatzen da gazteon inkonformismoa, geurezko errebeldia, abangoardia natural izatea. Baina ezer ez da berezkoa, eraiki egiten gara, eta gazte errebeldetasun hori ere, bizitzako garai zehatz batean pilatzen diren esperientzien ondoriozkoa da. Inposatu nahi diguten eta gustatzen ez zaigun errealitate batera asimilatuak izatearen kontrako errebeldia da. Beraz, badu zerbait biologikoz, baina asko du sozialez. Estatuak helduak baliatzen ditu sisteman bete behar dugun paper hori barneratu dezagun. Familian, gurasoak (gurasoen boterea baino adibide hoberik ez dago helduen boterea ulertzeko) baliatzen dira lanpostu duin bat, ezkontzea eta familia osatzea helburu bilakatu behar dugula barnera dezagun; hezkuntzan, irakasleak, edukiak galderarik egin gabe informazioa irensei eta merkatuaren beharrianen arabera modela gaitzen... Helduen boterearen bidez, "*probetxuzko pertsonak*" izan gaitzen prestatzen gaituzte (probetxuzkoa merkatuari mesede egiten diona da noski), eta ze kasualitate, hori ere maitasunaren izenean egiten da! Antzekotasun amaigabeak daude helduen boterearen eta patriarkatuaren artean. Helduen boterearen logikan, esperientzia pilatua duenari boterea aitortzen zaio, ezagutza eta arrazoiaren forman. Hiztegiak oso ondo islatzen du: *heldu-*

“

Aldaketa erradikal eta iraultzaileen lehen lerroan beti gazte jendea egoteko arrazoi nagusietako bat pazientzia izatera ailegatu ez direla da. Gazteengandik datorren urgentzia hori behar dugu”

Angela Davis

tzea, nagusitzeari baino, zentzuduna izan eta arrazoiak eskuratzeari esaten zaio; *heldutasun politikoa* esaten zaio arrazionalizatzeari (eta konformatzeari, amore emateari askotan?)...

Zoritxarrez, helduen boterearen logika gazte eta helduek konpartitzen ditugun espazio guztietan suertatzen da. Esperientzia pilatu horrek botere harremanak sortzen ditu militantzia espazioetan. Batzuetan bizipen zehatz batzuk eduki izanak arrazoiak ematen du, argudio moduan erabiltzen da, ez eztabaidarako elementu moduan. Zenbat aldiz entzun dugu: "*heldua zarenean ulertuko duzu...*" (zergatik ez nauzu argudio bidez konbentzitzen, gaztea izateagatik ulertzeko gai ez naizela pentsatu beharrean?), "*hau egiten saiatu ginen bere momentuan eta ez du funtzionatzen...*" (baina agian zuek saiatu zinetenean baldintzak desberdinak ziren! edo ez zenuten zerbait ondo egin), "*gu ere gazteak izan gara eta badakigu...*" (bai, baina ez zarete gazteak izan gure testuinguru berean!)... Hizkuntza, boterea eta hegemoniaren inguruan aparteko testu bat egin genezake helduen botereari buruz hitz egiten. Espazio konpartitu horietan, berri eta zaharren arteko talka egoten da. Gazteok gara berria, helduak zaharra. Eta teoriar, berritzea, ikuspegi eta egiteko modu berriak ekartzeko funtzioa aitortzen zaigu. Baina praktikan, trabak jartzen zaizkigu. Berrikuntzak mesfidantzaz begiratzen dira, *betiko* egiteko moduetan erosotzearen ondorioz, helduak izateagatik gazteek baino *arrazoi* edo *jakintza* gehiago izatea aurrezuposatu eta zalantzan jartzea galarazten da... Helduen botere hori barruraino sartzen digute, eta ez denez lantzen, helduak ez dira pribilegio horietaz kontziente: ez dute funtzio hori nahita betetzen.

“

Helduen boterea ez da esperientzia

gutxiago izateagatik

gazteak aintzat ez hartzea edo gutxiestea, besterik ez. Zentroan nor jarri eta lehentasuna zeri eman erabakitzea ere bada

Sistemak helduak behar ditu bere horretan irauteko. Eta mugimendu iraultzaileek gazte boterea behar dute aurrera egiteko, ez estankatzeko, etengabeko mugimenduan jarraitzeko. Horregatik, ezinbestekoa da helduen boterea eremu misto (gazte eta heldu) horietan lantzea, pribilegioak identifikatzea, horiei uko egin eta parekotasuna eraikitzea. Balio maskulinoekin egin behar den bezala, hain zuzen. Izan ere, argi dago gazte izate hutsak guri ere ez digula arrazoiak ematen. Borrokalari belaunaldi luzeen oinordekoak gara, eta horretaz harro gaude. Jakintza hori guztia pilotatzea da idealena, balioztatu ahal izan dezagun, helduen bizipen horiek guztiak gure ondare politikoa ere badira. Baina eman egin behar zaigu, ez gure argudioen kontrako arma gisa erabili.

Bestalde, helduen boterea ez da esperientzia gutxiago izateagatik gazteak aintzat ez hartzea edo gutxiestea, besterik ez. Zentroan nor jarri eta lehentasuna zeri eman erabakitzea ere bada. Zentzu horretan, agenda politikoa guztiz **helduzentrista** da. Helduenak diren "kontuak" lehenesten dira, "*gehiengoaren kontu*" direla pentsaturik. Eta, askotan, gazteon kontuak geure kontuak direla kontsideratzen denez, gure ekimenekin solapatzen dira, kontuan hartu gabe, gure identitate anitzen ondorioz, gazteok gazteak ez diren beste mugimendu batzuen parte ere bagarela, eta beraz, etengabe lehentasunak markatzera edo gure indarrak zatitzera behartuta gaudela. Sistemak barnerarazitako mentalitate horren ondorioz, gazteok ere barneratu egin dugu *denonak* diren kontu horiek *gureak* baino garrantzitsuagoak direla, eta gazteok bertan parte hartzeko *erantzukizun politikoa* dugula.

Esan bezala, helduen boterearen existentzia landu ere ez da egiten. Zenbatetan aipatzen da zapalkuntza laukoitza neska gazteon kasuan? Feminismoa gure jardunaren erdigunean jartzen hasiko bagara, zergatik ez dugu aukera hau baliatuko zapalkuntza desberdinak mahaigaineratu eta denei erantzuteko? Zapaldu-zapaltzaile harreman honetan, pribilegioei uko egitea dagokion horrek hala egin beharko du, eta ahalduntzea zein urratsa aurrera egitea dagokion horrek ere gauza bera egin beharko du.

Bidearen arabera bera da helmuga. Eta bidea egiten goaz, bagabiltza. Beraz, hau guztia lantzen hasi behar dugu, gure proiektuaren arabera ko pertsona gaurdanik bihurtzen, amestu dugun helmuga horretatik gehiegi desbideratu aurretik. ■

GURE FEMINISMOAK DESKOLONIZATZEA: ALIA NTZAK SORTZEKO DEMA ETA ERRONKAK



ITZIAR GANDARIAS GOIKOETXEA ETA CONY CARRANZA CASTRO¹

MUNDUKO EMAKUMEAK/BABEL-EN
ETA BRUJAS Y DIVERSAS-EN PARTE HARTZEN DUTE

Euskal Herrian aliantza feminista anitz, ezberdin eta luzera begirakoak sortzeko orduan hainbat dema eta erronka dauzkagu aurretik; hauetako batzuk testu honetan plazaratu nahi ditugu eta, horretarako, uste dugu geure adiskidetasun eta ezberdintasunen topaketa eskarmentutik hastea modurik onena dela.

Elkarrekin joan gara bidea egiten eta, honela, gure ezberdintasun pertsonalak ez ezik, zeharkatzen gaituzten eta maila diferentzetan kokatzen gaituzten ezberdintasunak ere ezagutzen joan gara. Euskal emakume autoktonoa eta Salvadorreko emakume migratua garen heinean, adin, klase, jatorri, bizi eskarmentu, lege egoera, gaitasun, talentu eta abarren ezberdintasunak dauzkagula ikusi dugu, hortaz, botere eta pribilegioei dagokien ere, era askotako mailetan bagaudela konturatu gara. Hala ere, hau ez da izan maitasunez, errespetuz eta konfiantzaz elkarrekin lan egiteko oztupoa. Honela, sozializatu gaituzten biktimismo, erru edota lausenguz mozorratutako nagusikeria jarrera heteropatriarkalekin apurtzen ikasi dugu egunez egunekoa praktikaren bitartez (hala, ez dugu beti asmatu, zenbaitetan hanka ere sartu dugu).

Gaur egun, “feminismoei” eta hauen aniztasunari buruz hitz egitea zeharo onartuta dago eta gure diskurtsoetan gero eta gehiago erabiltzen da. Edonola ere, emakume ezberdinen artean existitzen diren botere eta menderakuntza erlazioak behar den bezala eztabaigatuta eta aztertu ez ditugula uste dugu. Kezka honi loturik, zenbait erronka hauteman ditugu emakume migratu eta autoktonoek batu eta

lan egiten dugun hainbat eremutan parte hartzen dugunez gero².

Lehenengo eta behin, guztiz kezkarria da gaur egun zaintza gaia eztabaigatzen eta teorizatzen bada ere, zaintza eta etxeko langileen aldarrikapenak –langile hauetako gehienak migratutako emakumeak izanda- ez direla oraindik agenda feministetan lehentasunezko kontua. Gizarte Segurantzaren 2015eko abenduko datuen arabera, etxeko lanetan ari diren emakumeen %41,13, Euskal Autonomia Erkidegoan, eta %40,60, Nafarroan, etorkinak dira eta, barneko langile moduan aritzen diren emakumeen kasuan, portzentaje hau %90era heltzen dela uste da³. Gaur egun migratutako emakumeek burutzen dituzte lehen emakume autoktonoek egiten zituzten lan hauek, eta hau horrela da lan baldintzen prekarizazioaren, lan hau erregulatzen duten politikarik ezaren eta, batez ere, zaintza lanak gizon eta emakumeen artean zuzen banatzearen inguruko eztabaigatuta faltaren ondorioz. Beraz, lan hauek emakume batzuegandik beste batzuegana pasatu dira; gertaera hau egungo krisi ekonomiko, sozial eta politikoaren testuinguruan are agerikoagoa da eta *berdintasun sasoietako ezberdintasuna* deitu den fenomeno azalarazten du. Hau guztia dela eta, Euskal Herrian etxeko langileak diren emakume migratzaileak borroka feministan inplikatu behar ditugu, parte hartzaile moduan ez ezik, lider moduan ere bai.

Bigarren, arrazakeriaren kontra borrokatzeko indarrak biltzea premiazkoa da. Europak ez dauka mugarik kapitala eta merkantziak aske zirkulatzeke, baina bai mugatzen die pertsonaei aske mugitzea eta, gainera, ikusten

“Gustiz kezkarria da gaur egun zaintza gaia eztabaigatzen eta teorizatzen bada ere, zaintza eta etxeko langileen aldarrikapenak –langile hauetako gehienak migratutako emakumeak izanda- ez direla oraindik agenda feministetan lehentasunezko kontua

“

Sarritan feminismoa emakume burges zuriei atxikitutako auzi gisa ikusten nuen. Gerora, feminismoa, garatu ahala, batez ere emakume langileen zein emakume beltzen borrokan, askoz ere konplexuago bilakatu zen. Eta horrek arrazakeriaren eta klase zapalkuntzaren aurkako borrokekin bat egitea ekarri zuen ezinbestean. Askotan gure buruak feministatzat jotzen ditugunean zein feminismo motari atxikitzen garen zehaztu behar dugu”

Angela Davis

dugunez, Europa hau gero eta xenofoboagoa da. Beraz, arrazakeriaren kontrako borrokak eta borroka feministak bat egitea ezinbestekoa da. Angela Davisek esan duenez, “feminismo eraginkorrak homofobiaren kontra, klase, arraza eta genero esplotazioaren kontra eta kapitalismoaren zein inperialismoaren kontra egin behar du”. Ezin ditugu gure borrokak atomizatu eta hauetan isolatuki aritu. Kapitalismo heteropatriarkal arrazista eta neokolonialaren aurkako erresistentziak borroken arteko elkarriketara behartzen gaitu.

Honekin batera, eguneroko arrazakeria ahultzeko, elkarrekin egin behar dugu lan, zeren eta, Audre Lorden hitzak geure eginda, “arrazakeria elkartasunetik harago existitzen baita”. Zuritasunak oraindik funtzionatzen du diskriminazio marka moduan, maila estrukturalen ez ezik, gure eguneroko ekintza eta harremanetan ere bai. Horregatik zera galdetu behar diogu geure buruari: kapazak al gara beste emakume batzuekiko geure “ismo”etaz konturatzeko?, barruan daramagun arrazismo, klasismo eta sexismoaz kargutzen al gara? Hau dela eta, eta hona dator hurrengo erronka, emakume ezberdinen artean elkartzeko eta elkarri entzuteko eremuak indartu eta sortzen jarraitu behar dugula uste dugu. Geure premietatik irten eta bata besteari kasu eginda, gaur egun Euskal Herrian bizi garen emakumeen errealitate ezberdinak ezagutu behar ditugu. Audre Lorden aldarrikatzen zenez, gure arteko isiltasuna apurtu eta elkarrekin hitz egin behar dugu, ulertuak ez izateko edo minduak izateko arriskua gorabehera. Intimitate eta maitasun politikak sortu behar ditugu, elkarrekin egiteko aurrera, elkarrekin ikasteko eta gure kontraesanak, zalantzak eta gatazta elkarrenganako errespetuaz konpartitzeko. Hau harremanetik harago doa. Elkarrekin egote hutsak ez duelako aniztasuna bermatzen. Besteekin egoteak ez bagaitu interpelatzen, ezer gutxirako balio digu antolatzeak. Zalantzak eragiteko,

“

Zuritasunak
oraindik
funtzionatzen
du diskriminazio
marka moduan, maila
estrukturalen ez ezik,
gure eguneroko ekintza
eta harremanetan ere bai.
Horregatik zera galdetu
behar diogu geure buruari:
kapazak al gara beste
emakume batzuekiko
geure “ismo”etaz
konturatzeko?, barruan
daramagun arrazismo,
klasismo eta sexismoaz
kargutzen al gara?

gure identitateak mugiarazteko eta, arduraz baina ez kulpaz, gure pribilegioetatik konturatzeko gaitasunean datza ezberdintasunen benetako indarra.

Azkenik, gure gorputzak, gure buruak eta gure praktikak zentzu bitan deskolonizatu behar ditugu. Alde batetik, “hegoalde globaletik” datozen emakumeekin izaten ditugun jarrera paternalista eta asistentzialistetan birstortzen dugun herentzia koloniala albo batera utzi behar dugu eta portaera honek emakume migratzaileetan sorrarazten dituen gutxiagotasun eta gutxiespen jarrerak desagerrarazi behar ditugu. Feminismo erradikalaren alde benetako apustua egiten badugu, gure artean harreman era berriak sortu behar ditugu, praktika hierarkikoei, jakintza gutxiespenari, jarrera zurruntasunari eta gure arteko lehiari aurre egin diezaiegun eta jarduteko zein praktika politikoa sentitzeko bestelako moduak jorratu ditzagun.

Beste alde batetik, gure gorputz eta buruak deskolonizatzeak zera dakar berarekin batera, Euskal Herriak historikoki pairatu duen eta oraindik pairatzen duen kolonizazio eta zapalkuntza ere aitortzea eta, hortaz, denok, berton jaioak edo bertora etorriak, Euskal Herri burujabe eta askearen aldeko borrokara eramaten gaitu.

Laburbilduz, Cherrie Moragas feminista chicanoaren hitzetan, “Iraultzaaren ideia serio hartzen badugu, gure bizitzetan poztasuna (benetako poztasuna eta ez “sasoi onak” besterik ez) egon litekeela uste badugu, orduan, bata bestea behar dugu. Emakumeok elkar behar dugu. Menderatzen gaituen beldurra garaitu behar dugula nik/zuk bakartasunean jakitea ez delako nahikoa. Benetako boterea, zuk eta nik ondo dakigunez, kolektiboa da. Nik ezin dut jasan zure beldur izatea, ezta zuk nire ikaraz egotea ere. Ahalke fin honek akabatu egingo gaitu”. ■

1 Biok Bizkaiko Munduko Emakumeak-Babel eta Brujas y Diversas taldeetan hartzen dugu parte; Cony Gipuzkoako Garaipen taldeko partaidea ere bada.

2 Hainbat lan eremutan hartzen dugu parte: Euskal Herriko Munduko Emakumeen Marbxa Plataforman, Gasteizko Feministok Prest mobilizazioaren antolakuntzan eta Getxoko Boteretzeko Eskolako kultura arteko eztabaida eremuetan, besteak beste.

3 Gizarte Segurantzaren afiliaturik dauden emakumeak %41 dira. Hala ere, sektore honetan dagoen ezkutuko ekonomia hain handia izanda, seguruenik migratutako emakumeen benetako portzentajea askoz altuagoa da. Barneko langileen kasuan, datua hurbilketa baino ez da, Gizarte Segurantzak barneko eta kanpoko langileen artean bereizten ez duenez gero.

FEMINISMOAK EGINGO GAITU HERRI

Bide zidorretan barrena, bazterretatik, periferiatik... bideak urratzen, ber-asmatzen, ber-egokitzen jardun dugunak gara; su txikitan egosi ditugu bizitzarako estrategiak, irriak, haserreak, amorruek eta malkoak. Suaren bueltan dantzaz lehertu ditugu gorputz eta arimak. Sutan erre ditugu lotu nahi izan dizkiguten sokak. Eta sare berriak harilkatzen gabiltza; anitzok, elkarrekin eta saretuta. Bagarelako. Izan zirelako eta izango direlako.



SAIOA IRAOLA URKIOLA

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTAKO KIDEA

Kapitala, lehiakortasuna, txarrantxa he-
siak, mugetako hilobi erraldoiak, xe-
nofobiak, murrizketek, aberatsen eta
pobreen arteko amildegia, borroka sozialen
kriminalizazioa eta militarizazioa oinarri duen
Europar bizi gara. Hori da hegemonia politikoa-
ren inposaketa, eta gure hautuak berriz, bizitza,
elkartasuna, mugetako igarotze segurua, aniz-
tasuna, aberastasunaren eta jabetzaren bana-
keta, eta nola ez, borrokaren eta kolektibotasu-
naren legitimazioa dira. Finean, gerren amaiera
oinarri izango duen trantsizioa goldatzea, eta
Maialen Lujanbiok apirilaren 9an botatako ber-
tsoan zioen moduan "hau da herri hau azpitik
gora irauliko duen goldea", feminismoa, alegia.

Hortaz, egun, ezkerreko eraldaketan jar-
duten dugunak, feministak kasu, zein jokale-
ku edo dantzalekutan aurkitzen gara? lur zoru
arrakalatu eta ez egonkorrean dantzatzea da-
gokigula irtzi diot. Iraultzaren paradigma al-
daketa, garaipena iritsiko den egun handiaren
esperantzaren abailtzea; teoria politiko zein
estrategia homogeen heroikorik eza, etab.
Honek, batetik, pazientzia eskatzen digu;
denboraren kudeaketa kontzientea, urgentziak
eta eraikitzeak eskatzen duen zaintza, saretze,
elkarren arteko erritmoen errespetatze eta ba-
teratzearen arteko oreka, alegia. Eta bestetik,
eraldaketa bidean subjektu anitzok elkar
begiratzea, aitortzea, entzutea, eta kolektibo-
tasunean eraikitzea garrantzua.

Erronkez baino jada egiten ari garen bi-
deez eta egin ditugun apustuen inguruan ari-
tuko naiz ondorengo lerro hauetan. Hortaz,
planteatuko nukeen lehenengo desafioa eral-
daketa prozesu esanguratsu batean murgil-
durik gaudenaren kontzientziatik, egoera hau
aukera gisa ulertzean eta baliatzean datza. Bizi
ereduen aldaketa sakonen aurrean gaude eta
sistema patriarkal kapitalistak bortxaz ekarri
gaitu gaur bizi dugun aldaketa honen tenore-
ra. Ados. Baina, arauak puskatu eta sortzeko,
eraikitzeko, ahalmena badugu eta baita aukera
ere. Aldaketa norabidetzen ari gara, trantsizio
feministaren bideak urratsak emateko teno-
rean gaude. Aldaketa guzti horiek, beldurra-
ren kudeaketaren inguruko gogoeta egitera
garamatzate, aldaketek beldurra sorrarazten
baitigute. Baina beldurra blokea gaitzake edo
indartu gaitzake elkarrekin abentura berrietara
salto egiteko, erantzeko eta bizitzako aldaketei
eusteko. Orain, inoiz baino gehiago, sortzeko,
antolatzeko, eraikitzeko eta eragiteko dugun
gaitasunean sinistu behar dugu. Euskal He-
rriaren eraldaketarako abagunea irekitzen den ho-
netan feminismoaren sokari heldu eta eralda-
keta soziala norabidetzeko ordua da, orain da
trantsizio feministaren unea. Iparra argi dugu,
Bagoaz Euskal Herriaren burujabetza feminis-
tarantz!

Baina horretarako, proiektu feminista bat
behar dugu Euskal Herriarentzat, sexu bereiz-

keria eta zapalkuntza esparru guztietan gaindi-
tzeko, eta pertsonen zein bizi garen inguruaren
bizitzak erdigunean jarriko dituen ereduak erai-
kitzeko. Burujabetza feministaz ari garenean
prozesu indibidual eta kolektibo batez ari gara.
Buru eta jabe, pertsonaetik: Euskal Herria
osatzen dugun subjektuaren burujabetza bultza-
tuko duen ahaldundutza nahi dugu, gorputzak
(emozio, desirak, beharrak, pentsamenduak)
eta harremanak eraldaketa prozesuaren erdi-
gunean jartzen dituenak. Kolektibora: komuni-
tatearen sorrera, herrigintzan, herritarren parte
hartzean, Euskal Herriaren askapen prozesu
eta gatazken konponbidean eragiten duen
ahaldundutza prozesua, gutasunak egiten gai-
tuelako libre. Buru eta jabe, gure erabakitze-
ko eskubidearen, adierazteko eta politikoki era-
giteko gaitasunaren, herri alternatibak sortzeko
eta eraldaketarako dugun boterearen jabe izan
nahi dugulako. Hortaz, ez dago burujabetzaren
subjektu soil eta bakar bat, botere politikoari
eta euskal estatuaren sortze prozesuari lotu-
rik dagoena bakarrik. Aitzitik, horrek bidelagun
izan behar ditu beste hainbat prozesu, euskal
jendartea osatzen dugun herritar oro burujabe
izan eta askotariko zapalkuntza sistemetatik
osatuta-sendatuta egoteko. Finean, aske iza-
teko, burujabe izateko. Bestela, zertarako balio
diezaguke emakumeoi (anitzoi) Euskal Herria
burujabe batek, baldin eta ez badugu aske
sentituzko emakume gisa, langile gisa, lesbia-
na gisa eta gorputz ez arautu batean bizi garen

subjektu gisa? Euskal herritarren eskubideak, nahiak eta desioak kontuan hartuko dituen prozesu bat izango da; baldin bada, eta feministok prest gaude.

Herri honen zein bertako herritarren burujabetza prozesuaren barnean kokatzen dugu, bakegintzaren eraikuntza kolektiboa. Bake hitza izan dugu hizpide azken urte hauetan Euskal Herrian. Nahiz eta jada diskurtso politiko hegemonikoetan, bakea, segurtasunagatik ordezkatu duten agintari politikoei. Bakea ez da soilik zuzeneko indarkeriarik edo gerrarik gabeko egoera bat. Feministok, bakea; giza eskubideekin, garapenarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotutako epe ertain eta luzeko prozesu konplexu gisa ulertzen dugu. Normalizazio prozesua bizi dugula Euskal Herrian aditzen dugu han eta hemen. Patriarkatuaren funtzionamendu "baketsua" alegia? Baina emakumeak ez gara "bakean" bizi, ez behintzat emakumeon kontrako indarkeria normalizat duen bake egoera neutralizatu honetan.

Beraz, Euskal Herrian, gizarte zibila osatzen dugun subjektu anitzok, bakea, segurtasuna, memoria, justizia etab. kolektiboki berdefinitzearen beharra azaleratu nahiko nuke. Bestela, hemen ez baita bakerik izango.

Honez gain, kapitalaren nagusitasuna bizitzaz ordezkatzeko trantsizioa marrazten dihardugu. Ongi bizitzearen eta bizitza duinaren kontzeptualizazioan sakontzean urratsak ematen, herri honetan eraldaketa soziala nahi dugun subjektu guztien artean. Eztabaida eta aliantzari eustea, eta muturreko prekarizazio egoerak salatzeaz gain, elkarrekin eraikitzen jarraitzea. Zaintzaz, etxeko lanen errekonozimenduz, indarkeria sexistaz, elikadura burujabetzaz, ingurugiroarekiko zaintzaz, denboraren banaketa justu eta parekoaz, gorputzen gaineko kontrolaz, familia nuklear heterosexuallak dituen funtzioez etab. Bizitzen alde gaude-lako, bizitza burujabeak eskubide osoz nahi eta behar ditugulako elkarlanean jarduten dugu aldaketa sozial eta ekonomikoa helburu dugun subjektu anitzok.

Urteak daramatzagu norabide honetan feminismotik eragiten, gaur egungo egoera gure aurrekarien lanaren emaitza baita. Baina aurre-rabide horretan, gure gorputzetan, komunitatean, lurraldean zein pentsamenduan eragin duten gatazken, nagusiki patriarkatuaren, gatazka politiko armatuaren zein klase gatazka-ren saminak, minak, orbanak, zauriak sendatzea prozesu indibidual eta kolektibo bat dela pentsatzen dut. Horregatik, espazio anitzetan osatze prozesu paraleloak bideratzeko beharra dugula sentitzen dut. Terapia indibidual,

“ Feminismoa
sustraitzen
ari da eremu
desberdinetan
eta kontzientzia horretatik
iskinak astintzen gabiltza.
Feministok gero eta
aitortza gehiago dugu
mintzakide politiko gisa,
eta lortu dugu feminismoa
aldaketarako proposamen
politiko gisa aintzat hartua
izatea. Gainera, aliantza
indartsuak ditugu...
Mugimendu Feministan

pertsonal eta intimizatuak, kolektibizatze eta duten dimentsio politikoa egikartzeko. Konponbidea ez delako soilik indarkeria jakin batzuk (estatua eta borroka armatua) desagertzea, edota indar militar okupatzaileak kanporatzea, egitura administratibo-politiko bat erdiestea edota armagabetzea. Hori guztia bada, baina bada baita, despatriarkalizazioa, gizonek boterearekiko zein indarkeriarekiko duten monopolioa des-egitea, ingurugiroa suntsitzearen eta ustiatzearen ondorioez jabetzea ere. Azken batean, osatze prozesu bat abiaraztea. Gatazkek zeharkatutako gorputzak garenaren kontzientziazat osatzea oinarri duten ekinbide kolektibo eta politikoei bidea arinduko digute elkarri entzunez, begiratzuz, sentitu dugunaz hitz eginez eta elkar aitortuz. Osatzea da bide horretan dugun beste desafioretako bat.

Baina desafio hauei nola egingo diegu aurre? Konfrontaziotik, ezker kohesionatu eta sano batetik, militantzia osasuntsu batetik, desobedientziazatik, Mugimendu Feministaren aitortza politikotik, aliantza sozial eta sindikal indartsuetatik, internazionalismotik, baina batez ere: lidergo feminista indartsu eta kolektibo batetik. Euskal Herrian burujabetza feminista eraikitzeke, feministok kalean kontra-boterea artikulatzearekin batera, ahalduntze-boteretze

prozesu indibidual eta kolektiboak sustraitzen ari garela esango nuke. Boteretzea herrietan, kirolean, jabeakuntza eskoletan, emakumeen etxetan, sindikatuetan, alderdietan, kazetaritzan, euskalgintzan etab. Feminismoa sustraitzen ari da eremu desberdinetan eta kontzientzia horretatik iskinak astintzen gabiltza. Feministok gero eta aitortza gehiago dugu mintzakide politiko gisa, eta lortu dugu feminismoa aldaketarako proposamen politiko gisa aintzat hartua izatea. Gainera, aliantza indartsuak ditugu Mugimendu Feministan, horren erakusleho izan ditugu aurten izandako ekimen bateratuak: jaietako erasoan aurkako mobilizazio bateratuak, Emakumeen Mundu Martxako IV. Nazioarteko ekintza, Martxoaren 8an *Elkarrekin, askotarikoak, saretuta. Feministok iraultzarako Prest!* aldarri hartuta Euskal Herriko Mugimendu Feminista zabalaren batera jotzea, eta azken hilabeteko mobilizazio historikoa Gasteizen indarkeria matxistaren aurka 12.000 lagun bildu zituen *11 eraso 12 erantzun, Vuestras agresiones tendrán respuesta Feministok Prest* lemapean.

Boteretze prozesuan dihardugu feministok Euskal Herrian. Ildo honetan, apustu handi bat dugu euskal feministok eskuartearen: ahalmen politikoa lortzea, erabakiak baldintzatzeko boterea izatea, botere gune anitzetan egotea, gobernatzea azken batean. Zentzu horretan, ahamen politikoa lortzeko erronkan, historikoki botere politikoa monopolioa izan dutenek egun batetik bestera ez digute oparituko lazodun kartoizko kaxa batean. Pedagogia asko erabili izan dugu feministok historikoki konbentzitzeko, hori dela justua, parekoa; eta jarraituko dugu pedagogia, kontzientziazioa, lankidetzeta etab. lantzen. Baina botere jabetzaren (ahalmen politikoa dagokiona) aldeko prozesu honetan, botere hartzearen tira-biran, kendu egin beharko diegunaren irudikapena dut, beste erremediorik ez zaigula geldituko uste baitut, zenbaitetan. Boteretze prozesuan bidelagun ditugu noski, boterearen beraren inguruko hausnarketak, hizketaldiak, han eta hemengo irakurgaiak; historikoki egin izan dugun moduan, zein den feministok nahi eta behar dugun boterea, zein ezaugarri dituen etab¹.

Beraz, aldaketa, trantsizio feminista mar-txan da. Orain bi urte Ondarrun² adierazi genuen moduan: *guk (feministok) egin behar dugun bidea da, ez digu inork ezer egin ezta erraztuko ere, beraz, inori itxoin gabe gaurdani- nik jarraitu behar dugu trantsizio feministaren ezaugarritzean bide propioak eraikitzen*. Eta bagabiltza. Intzidentzia politikoa helburu eta Euskal Herriaren burujabetza feminista ipartzat hartuta, eremu anitzetako feministok borobilean biltzen, elkarri begiratzeko, egiten gabiltza-na aitortzen eta elkarrekin eraikitzen gabiltza. ■

¹ Botere(tze)a feminismotik artikuluan sakonduko du Amaia Zufia Erdozainek boterearen inguruan egiten dihardugun irakurketa.

² Euskal Herriaren burujabetza feministarantz dossiera, Euskal Herriko Bilgune Feminista. 2015.

EUSKAL ESTATUA, JENDARTEA ERALDATZEKO

ITZELEZKO IRUZUR POLITIKOA

Krisiak Espainiako Estatu bereziki gogor kolpatu du. Hau honela izan da Espainiako Estatuaren eredu ekonomiko eta sozialaren ahulezia endemikoengatik eta batere mesedegarria ez den espainolen ohituragatik, hau da, sekula ere ez dituztela hazkunde ekonomiko faseak aprobetxatzen euren ekonomiaren egiturazko arazoak behingoz konpontzeko: inbertitu beharrean, espekulatzen dute; etorkizunerako plan estrategikoak alboratzen dituzte, berehalako irabaziak lortzeko; desarrollismoa, garapen sozialaren ordez...

Estatuko ezkerreko sektore askok bigarren trantsizio bat aldarrikatu izan dute, Estatu eredu politiko, ekonomiko eta sozialki berrizatzeko. Euskal Herrian, trantsizio politiko horri ekiteko, prozesu demokratikoaren alde egin genuen, oinarritzko bi auzi konpontzeko bidean. Lehenbizikoa, gatazka armatuak markatutako eta gure herriaren ukazioan oinarritutako ziklo politikoa behingoz ixtea. Bigarrena, ziklo berriaren funtsezko euskarria finkatzea: euskal jendarteak bere etorkizuna –baita ekonomikoa ere– aske eta demokratikoki erabakitzeke daukan eskubidea, alegia. Hau ez zen izan krisia kudeatzeko helburuaz egindako proposamena, baina bai balio zuen krisia kokatzeko eta krisiari ekiteko garatu nahi genuen prozesu politikoaren integritasunetik.

Gatazka konpontzeko formula honetan ez zegoela ez garailerik ez galtzailerik hainbatetan errepikatu izan zen. Baina, egia esan, formula honek jendartea eta mekanismo demokratikoak gailentzen dizkio proiektu eta interes partidariei. Hortaz, garailerik badago: jendartea, langile klaseak batez ere osatzen duena. Eta badago galtzailerik: bere proiektua inposatu ezin duen gutxiengoa, jendarteak, libre eta demokratikoki aukeratu ahal izanez gero, ez lukeelako erabakiko esplotatua izatea.

Izan ere, bigarren trantsizioa egon, egon da. Baina ez da izan aldarrikatzen genuena, ez da burutu Estatuan etorkizun hobeago baten oinarriak finkatzeko helburuaz. Eta, jakina, ez da batere demokratikoa izan.

Lege eta neurri ekonomikoz moztarotuta, erreforma politiko oso bat inposatzeko baliatu dira krisiaz; eta hau izan da azken hamarkadetan egin diguten iruzurrik handiena. ‘78ko iruzurraren parekoa, nire ustez. Estalitako iruzurra izan bada ere, bere ondorioak oso nabarmenak izan dira: inboluzio demokratiko, politiko, sozial eta ekonomikoa.



AINHOA ETXAIDE AMORRORTU

LABEKO IDAZKARI NAGUSIA

Zaila zen jakitea burbuilak noiz egingo zuen eztanda eta finantza krisia ekonomia errealeran noiz zabalduko zen, krisi sozial sakon bihurtzeko azkenik. Baina gogoeta estrategiko askotan krisi hau aurreikusia genuen, bagenekien zeintzuk ziren sorburuak, eta krisiari ekiteko alternatibak bageneuzkan, bestelako eredu ekonomiko eta sozial baterako trantsizio prozesuari hasiera ematea, alegia.

Aitzitik, kapitalismo askoz basatiagoa inposatzeko testuinguru ezin hobeak izan da krisia. Ez dute arazo ekonomiko errealek bat ere konpondu, kapitalismoaren barne krisi guztietan sakondu dute eta herri sektoreentzat askoz bidegabeago eta bortitzagoa den eredu inposatu dute. “Krisi ziklikoetatik”, etengabeko krisian dagoen ekonomia eta kronifikatzen ari den egiturazko krisi sozialera pasatu gara.

Gure alternatiba krisiari ekiteko, hortaz, bestelako eredu sozioekonomiko baterako trantsizio prozesuari hasiera ematea zen, baina botere ekonomiko-finantzieroa zuzendutako erreforma kapitalista basatia izan da benetan gertatu dena. Bi hauen arteko aldearen gakoa honako hau baino ez da izan: zer egingo zen erabakitzeke ahalmena gutxi batzuek izan dutela, gehiengoaren gainetik.

Gakoa izan da, beraz, batzuek euren proiektua, euren interesak eta euren neurriak inposatzeko izan duten ahalmen hori. Eta, argi dagoenez, hau ez da zerutiar ahalmena edota prozesu natural baten emaitza: sistemarentzat, oro har, eta Euskal Herriarentzat, zehazki, historikoa den fasea zuzentzeko boterea Estatuak eman die.

Euskal Herriak krisi honi aurre egin dio Estatu egiturarik gabe eta, hortaz, ezin izan du Estatu moduan jokatu. Estatu propio batek zerbait ezberdina egin ahal izateko tresnak eta boterea emango lizkiguke, eta horixe izan da, hain zuzen, larriena, Estatu propio hori eraikitzeke perspektiba eta anbizioz gabe ekin dion gulari krisiari.

Estatu propioa izanez gero, emaitza ezberdina zatekeen? Egia esan, gure inguruko estatu guztiek krisiaren aurrean terapia berbera erabili dute. Eta gidoia aldatu nahi zuenari, hala nola Greziari, Troiak diziplina jarri die.

Baina, era berean, egia da kapitalak bere proiektua ezarri ahal izan duela, gobernuek Estatuen bitarteko guztiak bere mesedetan jarri dituztelako. Bai da erabakigarria Estatuak edukitzea! Izan ere, inposatu diguten erreforma politikoaren funtsezko oinarria horixe da, kapitalak Estatuak eskuratu egin dituela, sistema moduan betirako iraunarazteko, egiturazko krisian etengabe bizi arren.

“ Euskal Estatuaren aldarrikapen historikoak gaur inoiz baino balio handiagoa dauka...
...inposatu diguten eredu politiko eta sozioekonomikoari benetako alternatiba integrala emateko

**ESTATU PROPIOA:
BURUJABEA ETA FEMINISTA**

Euskal Estatuaren aldarrikapen historikoak gaur inoiz baino balio handiagoa dauka. Izan ere, inposatu diguten eredu politiko eta sozioekonomikoari benetako alternatiba integrala emateko, Euskal Estatuak bi ezaugarri funtsezko ditu:

Alde batetik, kapitalaren aurrean benetako botere politikoa eskuratu ahal izateko formula da, beti ere helburua Estatu burujabea erakitzea bada. Pernaldoren egia dirudi honek, baina ez da horrela. Gaur egungo Estatuaren ezaugarri nagusia burujabetza politikorik eza da, gehienetan, erabateko menpekotasun ekonomikoaren ondorioz.

Alternatiba Estatu propioa erakitzea da, baina aparteko finantza sistemen menpe edota bere lurraldean dauden multinazionalen erabaki politiko-ekonomikoen menpe ez dagoen Estatu. Hortaz, Euskal Estatuaren aldarrikapena, ezinbestean, burujabetza politiko eta sozialaren aldarrikapenari eta kapitalarekiko botere lehiari lotuta egongo da.

Eta, bigarrenaz, Euskal Estaturanzko bidea posible izango da, baldin eta bakarrik helburua errealtatea eraldatzea eta bestelako Estatu eredu bat erakitzea bada. Ez dauka logikarik Euskal Estatu aldarrikatzea gauden bezala gelditzeko. Eta gaur egungo Estatuaren hutsune eta injustiziak errepikatuko dituen prozesu politikoak ez du ibilbiderik izango. Laburbilduz, Estatu propioa eraiki nahi dugu jendarte eraldatzeko botere nahikoa edukitzeko.

Estatua eta boterea, banaezinezko bi gai. Emakumeoi historikoki ukatu zaizkigun bi errealtate. Eta euskal mugimendu feministan gero eta presentetago dauden bi kontzeptu, ezker independentistaren emakumeen lanari esker, besteak beste, hauek ezker abertzale barruan zein kanpoan Euskal Estatu Feminista aldarrikatu izan baitute.

Orain dela ia bi hamarkada egin genuen apostuan are imoago berresten gara: Estatu feminista eraiki nahi dugu. Emakumeen errealtatea eraldatzeko funtzio eta misioa bere egingo duen Estatu. Aldarrikapen feministak Estatu politika bihurtuko dituena, hala nola zaintza lanak BPGan kuantifikatu eta zenbatzea, honen balio ekonomikoa aintzat hartu eta emakumeentzako eskubide laboral eta sozial bihurtzea. Mugimendu feminista Estatuarekiko mintzaideztat hartuko duena eta, erabakiak hartzeko momentuan, emakumeen parte hartzeari benetako balio instituzionala emango diona, mugimendu feminista bera instituzionalizatzen saiatu ordez.

Oraindik bada Estatu Sozialista batek Estatuaren izaera feminista bermatzen duela defendatzen duenik; hala ere, eztabaida hori gainditzeko ordua da Estatu feministak zer esan nahi duen bete-betean hausnartzeko eta oinarritzko bi galdera erantzuteko: zein izango den mugimendu independentistaren estrategia feminista eta zein izango den Estatu propioaren aldeko estrategia mugimendu feministaren partetik.

“ Euskal Herrian
gehiengoa den
sindikismoak
ez du
elkarrikteta soziala
babesten, mugimendu
alternatibo antikapitalistaren
parte da, patronalari
boterea borrokatzeko
konfrontazioaren alde
egiten du, burujabea da eta
burujabetzaren aldekoa.
Eta sindikalismoaren lan
aldarrikapen klasikoetara
mugitzen ez den agenda
dauka.

Ezker abertzaleko emakumeok bi eztabaidetan presente egon behar gara. Lehenbizikoan, eztabaida lideratzen. Bigarrenaz, aktiboki parte hartzen, Euskal Estaturanzko prozesu politikoan gai honi zentralitate emango dion aliantza feminista sortzeko.

**ESTRATEGIA ETA MUGIMENDUA BERRITZU,
AURRERA EGIN AHAL IZATEKO**

Hau guztia esanda, inposatu dizkiguten erreforma kapitalisten prozesu honen alternatiba izango den prozesu politikoari hasiera emateko estrategia birdefinitzea da ezker abertzalearen berehalako erronka. Eta, honekin batera, gehiengoak osatzeko gaitasuna berreskuratzea ahalbideratuko duen mugimendua berreraikitzea, aldarrikatzen ditugun aldaketek zentralitatea ematearren, Euskal Herriak behar dituen eztabaidak lideratzearen eta jendarte nahasteko egiten diren beste eztabaida horiek alboratzearen. Bizi politiko eta sozialean zentralitatea hartuko duen mugimendua, zentroaren inguruko kalapitan galdu gabe.

Nire ustez, eztabaida honetan hiru dira argitu beharreko hiru gakoak:

- a) Imaginario berri bat sortu.** Imaginario komun berri bat sortzea ahalbideratuko duten diskurtso berriak behar ditugu. Sistemak hainbat ideia hegemoniko bihurtzea lortu du, hala nola “sozialdemokraziak porrot egin du, sozialismoa garaitua izan da, kapitalismoak ez dauka alternatibarik; kontua da sistema honetan leku on bat irabaztea edo bilatzea; garrantzitsuena da ikasketak onak, lehiatzeko gaitasuna eta ekintzailea izateko anbizioa edukitzea”. Imaginario berri hau honelako ideiei gailendu behar zaie. Gure diskurtsoak, Euskal Herria oinarri, kon-

takizun berri bat eman behar digu, ziklo berria kontakizun berri horretan eraikitzen hasteko eta burujabetza prozesua nolako izango den, tartean zeintzuk egoera politiko bilatzen ditugun, irudikatzen laguntzeko.

Diskurtso hau emakumeon protagonismoaz osatu behar dugu, gugandik aparte egiten diren imaginario kolektiboetara emakumeok batzen saiatzeko akatsa berriro ez egiteko.

- b) Estrategia berritzatzeko oinarriak.** Egia da estrategia berritzatu behar dugula, baina nahi dugun eta atzean utzi behar dugun horretan nahasi gabe. Askapen nazionalerako, askapen sozialerako eta emakumeon askapenerako behar dugun estrategiaren oinarriak definitzeko, zapalkuntza hirukoitzaren eskema oraindik da eskema zuzena.

Estrategia feminista behar dugu eta berau definitzeko baldintzetan gaude, ia 20 urtetako prozesu feministaren eskarmentua badaukagulako. Hau bezain garrantzitsua da lan honetarako daukagun testuingurua. Euskal mugimendu feminista lan eskerga egiten ari da emakumeak boteretuko dituen Estatuaren premia aztertzen eta eztabaidatzen.

- c) Konfrontazioa eta mobilizazioa, errealtatea eraldatzeko gakoak.** Errealtatea eraldatuko duen Euskal Estatu mobilizazioan eta konfrontazioan, botere lehiari, oinarritutako ibilbide luzearen emaitza izango da. Estatu berri eta ezberdin batean Herri burujabe moduan jokatzeko ahalbideratuko duen ibilbide desobediente.

Non daude honelako prozesu bat bultzatzeko aukera eta gaitasuna? Gazte mugimenduan, mugimendu feministan, ikasle mugimenduan... eta mugimendu sindikalean.

Euskal Herrian gehiengoa den sindikalismoak ez du elkarrikteta soziala babesten, mugimendu alternatibo antikapitalistaren parte da, patronalari boterea borrokatzeko konfrontazioaren alde egiten du, burujabea da eta burujabetzaren aldekoa. Eta sindikalismoaren lan aldarrikapen klasikoetara mugitzen ez den agenda dauka.

Kapitalari errenta lehiatzeari ez diogu uko egingo, jakina, hori akatsa izango litzateke. Eta orain are gehiago, aberastasun metaketa langilearen pobretzearen arrazoi nagusia da eta. Gure egoera lan munduan eta oinarritzko prestazio eta zerbitzu sozialak eskuratzeko izan den atzerakada kontuan hartu gabe, emakumeon askapenaz hitz egingo bagenu, elite feminismoa egingo genuke, emakume kolektibo oso murriztazentzat, alegia.

Konpondu beharreko auzi estrategiko asko daukagu. Nik, amaitezko, eztabaidarako bi galdera egingo ditut: zertan zehaztuko da mugimendu feminista burujabetza prozesuan ezinbestekotzat aitortzea? Zein da euskal sindikalismoari ematen diogun balioa burujabetza estrategia barruan eta zein da mugimendu independentistan ematen diogun papera eta tokia? ■

HERRI, KLASA ETA FEMINISTA IZAERADUN BORROKA JENDARTEAREN ERALDAKETARAKO

Euskal feminismotik ari naiz, euskal nazio-askapenerako mugimenduaren baitan bere ibilbidea hasi zenetik bazterretan bizirik dirauen feminismotik. Emakume izateagatik, Euskal Herriko kapitalismoan jasaten genuen bazterkeria berbera esperimentatzen genuen eraldaketa soziala erdiesteko helburuz 1970. hamarkadatik aurrera antolatu ziren ezker-erakunde iraultzaileetan ere. Lan militantea ere sexua-aren arabera banatzen zen. Bilerak amaitutakoan, hautsontziak hustu eta erratza pasa, edo kartelak itsatsi..., baina bestelako ardurak gizonen artean banatzen ziren. Bigarren mailan geunden, bai jendartearen, bai ezker-mugimenduan.

Testuinguru horretan hasi ginen hausnartzen, nazio- eta klase-zapalkuntzarekin batera, sexu-zapalkuntza ere bizi genuela, hirurak aldi berean sentitzen, banaezinak, gorputz berean. Eta errealtate hori identifikatzeko asmoz marxismoaren zein feminismo hurbilen iturrietara jo genuen; feminismo sozialista, berezitasunaren feminismoa edo feminismo erradikala izan ziren lehenbiziko erreferentziak. Baina ezin aurkitu aztertutakoa azaltzeko adierazpide egokirik. Beraz, "zapalkuntza hirukoitza" kontzeptua hasi ginen erabiltzen emakume, langile eta euskal herriar gisa jasandako zapalkuntza identifikatzeko eta errealtate honi aurre egiteko estrategiak proposatzeko garaian.

Latza izan zen garaia. Amaiezinak ziren eztabaidak erakunde iraultzaileetan feminismoaren ustezko jatorri burgesa zela eta, edo kontraesan nagusia eta menpekoak zehazterakoan, sexu-kontraesana beti menpekoea izanda, noski. Bestetik, berezitasun feminismoak ez gintuen ulertzen ezta onartzen ere, nazio- eta klase-askapenerako mugimendutik ari ginelako proposatzen gure teoria eta praktika feminista. Zailtasunak ikusita eta ideia hobeto azaltzeko asmoz, "euskal emakume langilea" terminoa proposatu genuen, emakumea jendartearen eraldaketarako subjektu politikotzat planteaturik eta borroken arteko elkarlana lan militanterako eredutzat harturik.

Bakar-bakarrik sentitzen ginen eta Angela Davis ezagutu genuenean sinetsi genuen ez geundela txoratuta, Estatu Batuetako emakume langile beltzen inguruan ari zen idazten guk esaten genuena. Desberdintasunak aintzat hartuta, emakume langile beltzen antzera, euskal emakume langile gisa zapalduak ginela aldarrikatzen genuen.

Jendartearen eraldaketarako bide luze horretan, aurrera goaz, subjektu politikoa feminista-

ren kontzeptua praktikan aberasten, borrokarako tresnak egokitzen eta helburu estrategikoak birdefinitzen. Ez dira makalak aurrean ditugun erronkak:

Emakumeok subjektu politikoa feminista eta jendartearen aldaketarako protagonista izan behar dugu. Emakumeen auto-antolakuntza bultzatzen jarraitu behar dugu herrietan eta eremu guztietan, ahalduz prozesuak eta duintasunez bizitzeko erresistentzia-mekanismoak sustatzeko eta Euskal Herriko mugimendu feminista sendotzen jarraitzeko.

Euskal Herriko mugimendu feministaren aitorza politikoa eta mintzaide politikoa gisa onar-

tua izatea lortu behar dugu. Mugimendu feminista izan da -eta bada- herri honetako emakumeen interesak defendatzen dituen eragile nagusia. Horregatik behar du izan mintzaide politikoa erakunde publikoen, alderdien, sindikatuen eta gaitzontzeko mugimendu sozialen aurrean. Eta horretarako, ezinbestekoa izango da Euskal Herriko talde feministen arteko elkarlana, aliantza zehatz eta estrategikoak bultzatzea, esperimentatzea.

Euskal Herriaren burujabetza feminista helburutzat hartuta, nahitaezkoa da herri-mugimenduen arteko elkarlana sustatzea, jendartearen eraldatzeko borroka guztien arteko aliantza eta elkarlana. Euskal Herria, feminista izango da edo ez da izango. ■



AMAIA ANDRIEU SANZ

AIZAN, EGIZAN ETA, EGUN, BILGUNE FEMINISTA
ERAKUNDEKO MILITANTEA

“

Jende askok ez du aitortzen emakumeek egindako lanari esker sortutako mugimendua dela. [...]

Hau da, ez naiz gizonak egiten duten lanari balioa kentzen saiatzen ari, hala esango dut. Emakumeek egiten duten lana azpimarratu nahi dut, hain zuzen, ikusezin gelditzen dena delako. Eta hori horrela da. Etxeko lanetatik, antolakuntzarainoko guztia. Eta askotan esaten dut antolakuntza, finean, mugimenduaren etxeko lanak direla. Ez zara ohartzen edo ez diozu arretarik ipintzen.

Ez zara ohartzen egiten denik egiten ez den arte. [...]

Emakumeek bultzatu zutelako da garrantzitsua boikota [...]

Boikota emakumeek bilakatu zuten arrakasta.

Etxeko langileak ziren. Neskameak ziren.

Angela Davis

ERALDAKETA SOZIALERAKO ERRONKAK EREMU POLITIKO INSTITUZIONALEAN

Alderdi politikoetan eta instituzioetan bereziki balioztatzen den ezaugarria eraginkortasuna da; erabakiak hartzeko azkartasunari eta berehalako emaitzak lortzeari esaten zaio, batez ere, eraginkortasuna. Erantzun eta emaitza azkarrek, ordea, badituzte albo kalteak, emaitzak lehenesten baitira prozesuen kaltetan. Eta, esango nuke, eraldaketa soziala bada helburua, emaitza edo helmuga bezain garrantzitsua dela horretara iristeko egiten den bidea. Bidea kolektiboa izatea nahi badugu, denbora eta lana eskatuko du, eztabaidatzeko, konfiantzak eta adostasunak eraikitzeko, gatazkei aurrez aurre begiratu eta gainditzeko. Eta sakoneko aldagetak egin nahi baditugu, ez dugu beste erremediorik, eraldaketa sozialeko prozesuak prozesu kolektiboak baitira. Horregatik, eraldaketa prozesu eraginkorrak egiteko, bidean eta helmugan bezain beste-ko arreta jarri behar da.

Gauzak beste modu batera eta modu kolektiboan egin behar baditugu, horrek nahi-taez eskatzen du gauzak egiteko bestelako denbora batzuk ezartzea eta “presa” hitza gure hiztegitik ezabatzea, ahal den neurrian. Kapitalismoak hainbeste goresten dituen abiadurak eta azkartasunak ez dute balio eraldaketa prozesuetarako. Gauzak egiteko eta, batez ere, gauzak beste era batera egiteko, denbora behar dugu eta instituzioen joko-arauak ere aldatu behar ditugu, ez baitaude modu kolektiboan lan egiteko pentsatuta.

Era berean, irudipena dut, sozietate patriarkaletan gizonek haien burua erdigunean kokatzeko joera duten bezala, eragile politikoek eta instituzioek ere badutela beraien burua guztia erdigunean kokatzeko joera, herritarrak haien bueltan dabilzan sateliteak balira bezala: alderdiak eta instituzioak zentroan eta herritarrak periferian. Lekuz aldatzeko ariketa egin behar dugu, alderdi politiko eta instituzioak zentroan kokatzetik herritarrak erdigunean jartzera pasa, erakunde eta eragile politikoak herritarren zerbitzura jartzeko. Politika herritarrentzat egitetik politika herritarrekin egitera etorri behar dugu. Demokrazia ulertzeko eta praktikatzeko modu berria eskatzen du horrek, demokrazian sakontzea, iraultza demokratiko bat: herritarrentzat egitetik, herritarrekin egitera eta inolako betorik gabe, hau da, gure bizitzan inguruko erabaki guztien inguruan erabakitzen, ekonomia ere erabaki gai bihurtzen, besteak beste.

Lotsagabeak izatea dagokigu, gauza guztien aurrean “zergatik?” galdetzea, eza-



LUR
ETXEBERRIA IRADI
EHBILDUKO
LEGE BILTZARKIDEA GASTEIZEN
(2102-2016)

rritako ordenarekiko kontzientzia kritikoa garatzea. Lehenik eta behin, eraldaketa prozesuak “desikaste” prozesuak dira. Inertziak eta ohiturak ez dira bidaide onak. Eta egiteko modu berriak sortzeko prozesu horretan, dominazio-harremanetan jarri behar dugu arre-ta berezia, batez ere, horiek gainditu nahi ditugulako, eta zanpatzailea izango ez den botere mota berri bat sortzen asmatu behar dugulako. Dominazio-harremanak gainditu eta botere positiboa eraikitzen asmatzea dugu erronka, boterea gauzak egiteko ahalmen gisa ulertuta.

Boterea ulertzeko eta praktikatzeko modu berriak eta positiboak sortu nahi baditugu, botere politikoa baliatu behar dugu, besteak beste, herritarrak boteretzeko. Ez dago instituziorik ez legerik, baina, herritarrak boteretu ditzakeenik. Horrekin esan nahi dut boteretzeko norberak egin beharreko prozesua dela, inork ezin duela beste inor boteretu. Baina instituzioek eta eragile politikoek

herritarrak boteretzeko baldintzak sortzen lagundu dezakete, tresnak eman eta baliabi-deak jar ditzakete, herritarrak haien bizitzan jabe izan daitezen. Herritarrak zuzentzetik edo gidatzetik (edo hori egin nahi izatetik, hobeto esanda) herritarrak boteretzeko bi-tartekoak jartzera pasatzea dugu erronka, horrenbestez.

Gauzak beste era batera egin nahi baditugu, denon artean, elkarri begira, elkarriketan, inor aurretik eraman gabe eta inorren aurretik jarri gabe, ezagutza mota guztiak onartzea eta ezagutzen arteko hierarkia gainditzeko ere beharrezkoa da, unibertsitatean eskuratutako ezagutza bezain baliagarria baita egunerokotasunak ematen diguna, esaterako. Modu kolektiboan eta horizonta-lean eraiki nahi badugu hierarkia ezabatu eta pulpitu zein oholtzak baztertu behar ditugu.

Bestetik, inguratzen gaituen errealitatea aldatu nahi badugu, geure burua aldatzetik hasi behar dugu. Barneratutakoa desikasi, deseraiki eta geure buruak eta erakundeak berrasmatu behar ditugu, ezarritako ordena birsortzeko tresnak baino, eraldaketarako giltza izan nahi dugulako. Horrekin lotuta, pertsonen boteretzeko aldarrikatzen badugu, gure erakundeetan ezin ditugu erabakiak goitik behera hartu; hortaz, egitura bertikalak desegin, gure arteko dominazio-harreman kaltegarriak azaleratu eta gainditu, eta orain arte bazterrean egon diren kolektiboek lekua egin behar diegu. Hala, gazteek, emakumeek eta jatorri ezberdinetako pertsonen protagonismo berezia izan behar dute, orain arte ez bezala. Ez da nahikoa ahotsik gabekoen ahotsa izatea. Ahotsik gabekoei ahotsa eman behar zaie.

Lehen esan bezala, beharrezkoa da le-kualdatze prozesua egitea, hau da, alderdi politiko eta instituzioak leku batetik kendu, beste batean jartzeko, erakunde eta instituzio politikoak erdigunean jartzetik herritarrak eta mugimendu sozialak jartzera. Izan ere, eraldaketaren indarra jendartearen dago. Eraldaketa ez da goitik behera etorriko eta ez da egun batetik bestera gertatuko. Txin-durri lana eta oinarrikoa behar ditu. Eta hori horrela izan dadin beharrezkoa da jendarte antolatuta eta ondo saretua. Eragile politikoek eta erakundeek horretarako baldintza ego-kiak sortzen lagun dezakete, jendartearen eta mugimendu sozialen autonomia erres-petatzen eta bertatik sortzen diren eskaerei bide ematen. ■

SUBJEKTU ALDAKORRAREN ARTIKULAZIOA



ARANTZA SANTESTEBAN PEREZ

EZKER ABERTZALEKO KIDEA, HISTORIALARIA ETA FEMINISTA

Ezker abertzalearen proiektuaren definizioari frankismo garaian eman zitzaien hasiera. Gaur arte, ordea, modu irekian eta etengabearen proiektu politiko honen kontzeptu nagusiak zehazten jarraitu du ez-

ker abertzaleak, unean-unean eta fase politiko konplexu askoren hondarretan.

Esan genezake independentzia eta sozialismoa aldarrikatzen duen edozein proiektio

politikok aspirazio hegemonikoa duela; zentzu horretan, boterea eskuratzeko bihurtzen da helburu politiko horiek eskuratzeko modu; botere instituzionala, botere sinbolikoa, herri boterea.

Hori oinarritzat harturik, ezker abertzalearen proiektu politikoaren hartzailak herritarak izan dira beti; ponentzia politiko eta adierazpen politikoen jarioan, *Herria* deiturikoa, hain zuzen ere. Kategoria zabalegia izateagatik, zehaztapenetan jarraitu zuen ezker abertzaleak 70. hamarkadan, “Pueblo Trabajador Vasco” formulazioa xedatu zuen arte. Ordutik aurrera, helburu politikoak eskuratzeko subjektu politikoa PTV izan zen.

80. eta 90. hamarkadetako olatu neoliberalaren garapenak kapitalaren globalizazio prozesuari eman zion bide, eta une honetan krisi ekonomiko eta sozial sakon baten ondorioak bizi ditugu. Horren guztiaren ondorioz, egitura sozialek eta prozesu sozialek aldaketa esanguratsuak jasan dituzte eta, hortaz, eraldaketarako subjektu politikoaren ikuspegiaren eta osaketaren parametroak errotik aldatu dira. Horren aurrean, ezker “klasikoak” zailtasunak izan ditu gertatu diren aldaketa horien guztien arabarako proposamen politikoak eta definizioak modu eguneratuan egin ahal izateko. Horren ondorioa izan liteke, gaur egun, oraindik ponentzia politiko batzuen oinarrian PTV

IDENTITATE KOLEKTIBOAK BERRERAIKI, SUBJEKTU ERALDATZAILEA OSATZEKO



IZASKUN GARCIA BORDAGARAI

LAB SINDIKATUKO KIDEA

Klase gatazkan interes konpartituek eta kolektibo izaerak herri langilearen indargune nagusia direla jakinda, sistema kapitalistaren estrategian subjektua zatikatzeak betidanik izan du garrantzia berezia.

Instituzio publikoek zein patronala ordezkatzeko erakundeek identitate kolektiboak bateratzen dituzten elementuak erasotu eta berez konpartituek diren interesak kontrajarri izan dituzte: emakumezkoen sarbidea betidanik “gizonezkoenak” izan diren lanbide edo postuetan; enpresa nagusiaren eta enpresa laguntzaileen langileen arteko banaketa; etorkinak eskubide gutxiagodun herritar eta langile bihurtzea... Subjektuaren zatiketan eragiten duten ele-

mentuei erreparatzea besterik ez dago elementu zatikatzaileak sistemak inposatuak direla ikusteko.

Horrekin batera, ondo antolatutako estrategia horretan, azken urteotan gure bizitzaren eremu ezberdinetan “indibidualizazio prozesuak” indartu dira.

Ekonomia neoliberalak “ni autarkikoaren” irudia bultzatzen du, nork bere bizia guztiz eta bere kabuz gidatu ahal duelako ilusioa, alegia. Baina ideologia honek egunerokotasunarekin egiten du talka: lan munduan edo jendartean diren gatazka sistemikoei ezin zaie indibiduo moduan aurre egin. Norbanako “autosufizientearen” kontzeptu ideologikoak elkarrengana ko betebeharrak ezabatzen ditu eta, hortaz,

formulazioa erabiltzen jarraitzea; subjektua irudikatzen eta izendatzeko zailtasun nabariak dauden seinalea.

Herritarrek oinarri dituen proiektu politikoa-
ren irismena zalantzarikoa izango litzateke PTV
honen berriskupena egingo ez bagenu; izan
ere, gaur egun hiru kontzeptu hauek proble-
matizatu egin zaizkigu:

Pueblo: Herriaren nozioa definitzea oso
ariketa zaila da. *Zer da herria?* liburuan (*¿Qué
es el pueblo?*¹), Butler, Badiou eta Bourdieu,
beste autore batzuekin batera, galdera ho-
rri erantzuten saiatu dira: botatzen dituzten
hausnarketa mamitsuen harira, esan liteke he-
rria norberarentzako dimentsio humano jakina
dela, baina ezin duela inoiz herritarren osota-
suna errepresentatu. Era berean, gaur egun,
herria dimentsio espazial, politiko eta sinboliko
aldakorra dela ulertu beharra dago, etengabe-
ko pertsonen fluxu eta prozesu sozial dinami-
koen testigua dena.

Trabajador: Aurretik aipatu ditugun pro-
zesu politiko eta ekonomikoen ondorioz, lan
munduan errotiko aldaketak izan dira. Gauzak

horrela, langilearen egoera, izaera eta iruditegia
erradikalki aldatu dira. Gaur egun, birpentsatu
behar da “langile” kategoriak subjektua artiku-
latzeko duen ahalmena.

Vasco: Zer da XXI mendean euskaldu-
na izatea? Ze praktika multzok definitzen du
euskalduntasuna? Aurreko hamarkadetak
praktikak eta gaur egungoak berberak al dira?
Subjektu politikoa artikulatu ahal izateko beha-
rrezkoa da euskalduntasunari atxekitzen zaiz-
kion praktika multzoa etengabe definitzen
egotea².

Hausnarketa honen erdigunera joanda, argi
dago PTV delakoak, bere oinarrian iruditegi
maskulinoa ordezkatu izan duela. Aipatu ditu-
gun hiru kategoriatan hauek –pueblo/trabajador/
vasco- ondoan daramate ezinbestean, euskal
herriko gizon langile industriakoa edota lan-
dakoa. Urteetan beraz, bazterrean geratu den
emakumearen dimentsio osoak subjektuaren
artikulazio berri bat eskatzen du ezinbestean.

Postmodernitatearen garaiotan, zapaldua
eta zapaltzailearen arteko harremana konple-
xutasunez bete den honetan, zapalkuntza hi-
rukoitzat islatzen duen subjektu politikoa osatu
daitekeen da ezker mugimendu askoren gal-
dera nagusia.

Argi dago, lehen subjektua egituratzeko
erabiltzen ziren kategorizazioak gaur egun
ez zaizkigula balio: ez zapalkuntza desagertu
delako, baizik eta generoa, klasea eta jato-
rria oraindik analisirako egokiak bazezazkigu
ere, subjektu politikoa artikulatzeko beste-
lako formulazio ireki eta berri batzuk behar
ditugulako. Era berean, testuinguru honetan,
subjektua *a priori* identifikatu nahi izatea,
erredukzionista izan liteke eta politikoki ez
eraginkorra. Neurri handi batean, berritza-
r dugun eskema politikoan, subjektuaren de-
finizioa bidean egin beharko dugu, unean-u-
nean, parekotik parekora eta indefinizio maila
handiekin. Zaila eta, era berean, ezinbeste-
koa. ■

1 *¿Qué es el pueblo?*, ZZ.AA., CaSUS-BELLI, 2014

2 Identitatea eta anomalia. Apodaka, Eduardo. PAMIELA, 2015.



Kontua ez da nik, pertsona indibidual gisa, era indibidual batean, zerbait lortu dudarik. Mugimendu
baten inguruko kontua da, hamaika lagunen (euretako asko ezezagunak) arteko esfortzu kolektiboari
esker lortutakoa, eta hauexek sortu zuten ezinezkoa lortzea posible egin zuen mugimendua.

Angela Davis

neoliberalismoak bilatu bezala, Ongizate Es-
tatua bera ere arrisku biziaren jartzen du.

Lan munduko adibideak ez ditugu faltan:
langabeziaren aurrean, norbera “ekintzailea”
izatea bultzatzen da; patronalaren asmoak lan
harremanak indibidualizatzeko eta langile ba-
koitzak bere lan baldintzak “negoziatu” edo,
hobeto esanda, onartu ditzala inposatzea.

Ezin diogu sistemari horrelako ahalmenik
eman, botere ekonomikoak ezin du eraba-
ki norbera zer garen edo zeren parte garen.
Ezarritako zatiketa gaitzitzea ezinbestekoa
da, sistemak ezartzen dizkigun indibidualizazio
prozesuei aurre egin eta identitate kolektiboak
berreskuratzea da gakoa. Jendartearen, lan mun-
duan, esparru ezberdinetan izan diren aldaketak
ondo aztertuta eta identitate kolektiboak berrera-
kitzeko batzen gaituzten ezaugarri eta interese-
tan jarri beharko dugu arreta. Ikusten dugunez,
lan munduko eta jendarte mailako egoerak uste
baino harreman handiagoa daukate.

Sindikalismoak, lan munduan egon-
dako bilakaera kontuan izan, eta nagusiki
industriako langile finko gizonezkoei zu-
zenduta egotetik, langileria osatzen duten
sektore guztien interesen ordezkari izatera
pasa behar du, baita sektore feminizatuen
eta prekaritate gordinena pairatzen duten
sektoreenak ere. Guztientzako antolaketa
eskaintza eraginkorrak ahalbidetzerako egin
behar du jautzia, prekaritateak eta saka-
banaketak antolatzeak eta bat egiteko mo-
duran eragin eta erabat zaildu egiten duela
kontuan izanik.

Honetaz gain, soldatapeko langileak ez
ezik, sindikatuak merkatu araugabearen dihar-
duten langileak, langabeak, autonomoak,
nekazaritza eremukoak, etxeko langileak,
gazteak, etorkinak... elkarrekin harremantze-
ko tresna ere izan behar du. Ikuspegi anitzak
eta interes ezberdinak kudeatzeko gaitasuna
izan behar du. Identitate kolektiboa osatzeko
gai izan behar du, batzen gaituzten elemen-

tuen eta interesen gainean, nahiz eta beti ere
oinarrizko identitate eta ezaugarri ezberdinak
kontuan hartu eta aitortu.

Eraldaketa prozesuan protagonista izan
behar duen subjektua osatzeaz ari gara,
subjektu eraldatzaileaz, alegia. Egungo za-
palkuntzak gaitzitzea dituen eredu berri bat
eraikitzeak estrategian, zapalkuntza horiek
pairatzen dituzten sektoreek izan beharko
dute lidergoa eta protagonismoa. Erakunde
zein eragileoi subjektu eraldatzaile horren
mesedetan lan egitea dagokigu, subjektu
eraldatzaileari tresna baliagarriak eta eragin-
korrek eskainita.

Honela, sindikatuari dagokio egun bul-
tztatzen ari den prekarizazio prozesuari aurre
egiteko, prekaritatea pairatzen dutenentzat,
eta horretan bereziki emakumeentzat, anto-
latzeko eskaintzak zein beraien interesak de-
fendatzeko estrategia eraginkorrak martxan
jartzea. ■

(...) Iritsi da garaia bidezko euskal jendarte anitz, inklusibo, euskaldun eta solidarioa eraikitzeko, herritarren borondatean oinarrituta, beste inposiziorik edota kanpo esku-hartzerik gabekoa. Ibiltzeko eta bidea egiteko garaia dugu. Horregatik eta horretarako proposatzen dugu **Euskal Herriko eskubide sozialen Karta** (...)

ALIANTZAK ERALDAKETA PROZESUETAN



EDURNE LARRAÑAGA CELADA

POLITOLOGOA. LABEKO ETA EUSKAL HERRIKO ESKUBIDEEN KARTAKO KIDEA

BEHARRAK BULTZATUTA ERAIKITAKO ALIANTZAK, PROZESU SOZIALA SUSTATU ZEIN BERMATZEKO. ERA BEREAN, ALIANTZAK ELIKATZEKO, ARRETA PROZESUAN JARRI BEHARRA.

Krisialdi sistemikoaren testuinguruan, herritarren eskubideen kontrako inboluzio egoerari indar posiziotik erantzun beharrak eta sistema eraldatzeko gehiengo soziala artikulatu beharrak, natura zein bizitza erdigunean dituen eredu sozial berri baten aldeko aliantza indartsua eraikitzea izan zuen ondorio.

Prozesua bera eraldaketarako bitarteko, ibilbide eta helburu zirela ulertu genuen. Prozesuari garrantzia eman eta elkarrekin arituz gero, aukera berriak ireki eta hasierako momentu hartan aurreikusitako bideak jorratu ahal izango genituzkeela ulertu genuen.

Inertziak edota eskema zaharrak alboratzea erreza ez dela aitortuz, urratsak kolektiboki egiteari ekin genion, errealitatea eraldatzen ari girela ulertuta. Horrek berak aliantza eremu berriak eraiki edo sendotzeko baldintza berriak sortzen zituela ikusi dugu.

ERALDAKETA PROZESUAREN SUBJEKTU KOLEKTIBOA, ALIANTZEN BIDEZ ERAIKITAKO DA ETA LANGILE KLASEA ZEIN HERRI SEKTORE ZABALAK BILTZEN DITU.

Aniztasuna balio positiboa dela ulertuz, identitate ezberdinak aldarrikatzen ditugu. Prozesuan

zehar eraiki, osatu eta sendotu den subjektu kolektiboak hainbat ezaugarri bereganatu ditu eta, zalantzarik gabe, osoagoa zein eraginkorragoa da:

- Batetik, zapalkuntza integralaren aurrean, langile klasea eta herri sektore anitzek osaturiko subjektu kolektiboa ezinbestekoa dela eraldaketa gauzagarri egiteko.
- Bestetik, subjektu hori identitate anitzen aitorza zein integrazioetik eratorritakoa dela eta nazio-klase-genero zapalkuntzari aurre egiteko bokazioa duela.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren baitan martxan den prozesu sozialean, aniztasuna ikusarazi, aitortu eta balioan jartzea izan da erronka, baina etengabea batzen gaituena identifikatu eta horren baitan elikatzen jardun dugu, kontrajarriak ez direla ulerturik.

ESKUBIDEAK, ORUBE KOMUNA

Proiektu politikoen arteko lehia edota interes talken gainetik, herritarren eskubide kolektibo eta individualak izan dira aliantza sozio-sindikalararen orube komuna, norbanakoaren eskubideak kolektiboki dagozkigun eskubideak bermatzean lortuko ditugula ulerturik. Kartak jasotzen duen bezala, herritarrok gara eskubideen jabe eta sistemari dagokio hauek bermatzea, eta horretarako politika publikoak, aurrekontuak, laguntza zein bitartekoak eta abar eskaini behar ditu. Erabaki politikoen ondorioz, ordea, egungo sistemak ez ditu herritarren eskubideak bermatzen. Hortaz, osagarriak diren bi lan eremu ditugu: batetik, sistema barnetik eraldatzeko borroka eta, bestetik, alternatiba praktikoen bidez, herritarrek bestelako eredu bat praktikan gauzatzen ahalegintzea, sistemaren baitako pitzadura eragiteko eta eredu berria beharrian sozial bilakatzeko.

Karta eskubideen inguruan eraikia izateak aliantzen eraketa erraztu zuen eta egun parte-katzen dugun marko politiko-idearioa sendoa da, guztiok bat egiten dugun elkargunea delako. Elkargune horretan, bi lan ildoak integratu ditugu, osagarriak izateaz gain, elkarri elikatzen diotelako.

“

Uste dut beharrezkoa dugula aitortzea ezin garela soilik emakumeak izan feminismora, ikuspegi feministetara eta estrategia feministetara atxikitzen garenak.

Angela Davis

ALIA NTZEK PROZESU ERATZAILE-ERALDATZAILEA HAUSPOTZEN DUTE.

Garatzen ari den prozesu soziala, prozesu eratzailea da, gaurdanik etorkizuneko eredu soziala gauzatzen ari garelako. Gobernuak neoliberalismoan sakontzeko harturiko erabakiek, larrialdi sozial egoerak areagotu eta herritarrek eskubiderik gabeko objektu bilakatu nahi ditu (gure bizitza, herri edo gorputzari buruzko erabakiak hartu ezinik). Euskal Herri luze zabaLEAN, milaka dira egungo eredu sozial eta ekonomikoari aurre egiten dioten herritar, kooperatiba, eragile sozial zein sindikatua edota alternatiba praktikoa gauzatzen dituzten langile zein herri sektoreak. Guztiak norabide berean jarduten dugu natura zein pertsonak erdigunean izango dituen eredu sozialaren aldeko prozesuan, bakoitzak egiten duenari balio politikoa ematen eta prozesuaren aldeko gehiengo sozial berriak eraikitzen.

Prozesu sozialaren helburua eskubide sozialak diskriminaziorik gabe bermatzea izanik, eraldaketa prozesua ariketa demokratikoa ere bada, pertsona guztien aukera berdintasuna duelako oinarri eta askatasunean bizitzea dugulako helburu, zaintza erdigunean kokaturik.

Prozesu soziala eraldaketa prozesua dela ezin ahaztu, egungo sistema eraldatu eta berria martxan jartzea baititu helburu. Kapitalaren aginduetatik, herritarren botererantzko igarobidea da, ezinbestean ezarrita dagoen status quoa aldatzera datorrena. Herritar guztiok zoriontsu bizitzeko eskubidea eta gogoia dugu.

Eraldaketa prozesua herri prozesua ere bada, kolektiboki batzen gaituenari heldu eta helburu komunak lortzeko, herri moduan egiten dugun bide kolektiboa delako. Azken batean, burujabetza ariketa praktikoen segida da, nor bere buruaren jabe egiten gaituena: herritarrek agente bilakatu eta herri gisa behar dugun eredu sozioekonomikoa elkarrekin eraikitzen dugu.

KULTURA POLITIKO BERRIA BEHAR DUGU ETA BADATOR!

Azken urteetan ikusten ari garen bezala, kultura politiko berria, berez datorren praktika politikoa da. Egiteko molde berritzaileak, harremanetarako eredu anitzak, erabakiak kolektibizatzea, zaintza gure bizitzaren (eta ondorioz, militantziaren) erdigunean kokatzea... ezinbestean eskatzen dute kultura politiko berria. Kultura politikoaren aldaketa ere prozesuan zehar transformatzen eta elkarrekin elikatzen da. ■

ZAZPI “B” ALIA NTZAK ERA IKI ETA BIZITZEKO



OLATZ DAÑOBEITIA CEBALLOS

JOXEMI ZUMALABEKO KIDE ETA
PARTAIDETZA HORRETATIK
ALIA NTZA PROZESUETAN
ARITUTAKOA.

Aliantzetaz hitz egiteak zergatik, zertarako, norekin, noiz arte eta nola galderekin zerikusia badu. Baina baita eraldaketa prozesuak, politika eta politikoa, zein boterea bera ulertzeko dugun moduarekin ere.

Beraz, zapalkuntzak eta askabideak aztertutako ulertzeko erak, antolatutako dugun moldeak, begiratu eta geure burua aurkezteko dugun moduarekin ere lotura badu aliantzen gaiak. Izan ere, begirada intersektionala tresna politikotzat hartzeak ala ez, identitate finko eta itxietatik aritzeak ala berri eta aldakorrei leku egiteak, esate baterako, erabat alda dezakete aliantzen posibilitatea bera.

Aliantza emankorrez erditzeko, barneratuta ditugun dikotomietatik (publiko eta pribatua, gu eta besteak, norbanakoa eta kolektiboa, soziala eta politikoa), fragmentazio eta sektorializaziotik (“nireia eta zurea ez dira gauza berbera”, zapalkuntza sistemak elkarri elikatu eta eusten dioten marasma sare konplexuak ez bailiran) eta hierarkizazioetatik (“nireak, noski, lehentasuna du, neurea baita estrategikoa zinez”) aldentu behar gara. Aliantza politikoa, geure identitate eta egitasmo politikoe-tatik baino ez eraikitzeko dugun joera atzean utzi, eta zapalkuntza dinamiken eguneroko zirkuituak borrokatetik eraikitzearen aldekoa naiz: bidean harremanetan egonik, lan egiteko modu berri zein askatzaileagoak sorturik eta, horrela, eraldatu gaituzten bide eraldatzaileei ekin.

Ondoko **“B”** hauek proposatzen ditut aliantzak eraiki eta bizitzeko:

BOROBILEAN aurpegiak elkarri ikustean

elkar ezagutu eta aitortu dezakegulako. Ertzik ez duelako, beraz inklusibo eta malgua delako. Unean une egokitzeko aproposa.

BEHETIK egiten dena. Komunitatetik, herri mugimenduetatik, eguneroko hartu-emanetatik. Pertsonen usteen eta praktiken aldaketan arreta ipinita, esanahi hegemonikoak aldatuta, eta horizonte politikoa posible berriak irekirik. Politikaren ulkerak zabaldu eta boterea beste modu batera ulertzen. Boteretzeko prozesu amaigabe gisa.

BAZTERRETATIK. Orain arte ikusi ez ditugunekin eta ikusi ez ditugun eremuetan aliatuta. Borrokan hierarkizazio eta sektorializazioa gainditu eta intersektzioetatik elkar konektatzeko nodoak bilaturik saretze lan etengabea. Bazterretatik marrazten direlako jendarte berriak.

BAT EGINDA. Subjektu politikoa ez delako bakarra (ezta koherentea ere). Subjektua multiplea eta anitza delako. Zapalkuntza zein eragingune anitzak jasotzen dituen subjektua da. Interdependenziaren kontzeptutik abiatutik, elkarren beharra dugu, baina bat eginak ez du elkarri loturik esan nahi derrigorrez. Izan ere:

BERBETAN eraikitzen den subjektu eta eraldaketa prozesua dela ulertzen dut. Elkarriketaren, kontraesanetan eta batzuetan gatazkan. Gatazka horiek modu sortzailean konpondu eta, joera lehiakorrek atzean utzita, aurrera jotzeko motore bihurtu. Teoria eta praktika ezberdin eta berriak sortu, homogeneizazioetatik aldentuta, erritmo, lengoai eta uste ezberdinei leku eginda eta kontraesanetan atzamarra sartzen.

BIDEAN egiten dena, ibilian. Proiektuak ez direlako aurre-definizio itxi eta borobiletik eraikitzen; unean uneko baldintzen arabera eraikitzen joaten dira. Mugimenduan eta prozesuan. Des-eraikuntza eta eraikuntzaren arteko dialektika geldo baina sendoa. Nolatasunari garrantzia ematen eta zaintzen. Eta ahal dela:

BARREZKA. Militantziari alaitasun eta plazer handiagoa ematea dagokigula uste dut. Baina barrea, ez dadila beste emozioen espresioa ukatzeko bide izan: nekea, negarra, amorrua, zauriak, haserrea eta beldurra hor ditugu. Horiek ere kolektiboki kudeatu behar ditugu, militantzia gune aska bilakatu, auto-kontentziotik aldentu eta norabide askatzailean eraldatzen gaituen prozesua bihurtu behar dugu. Elkartasuna, kidetasuna, errespetua, laguntza, ulermena, autonomia, konfidantza eta segurtasuna erein, ernalduta eta hazi/hasiz. ■

FEMINISMOA ETA KLASA IKUSPEGIAZ APUNTE BATZUK



KIZKITZA GIL DE SAN VICENTE GURRUTXAGA

LABEKO ETA IPAR HEGOA FUNDAZIOKO KIDEA

Feminismo eta klase sozialei buruz hausnartzeko momentu honetan, botere banaketa sozial guztiak –klase, genero, sexu, arraza, nazio botere banaketak- garaitzea ekarriko duten praktika politikoak nabarmendu nahiko nituzke. Feminismoak abiarazi duen eztabaida garrantzizkoa da marxismo klasikoak jendartearen, ekonomiaren eta klase sozialen inguruan daukan ikuskeran. Eztabaida ez da berria, baina oraindik orain eragile eta teoriko feministen esku dago ia huts-hutsean; horrela, ezkerren ulerkeran, hausnarketan eta ekinbidean ez da guztiz barrendu. Baina errealitatea hortxe daukagu eta gure ardura, feministak garen heinean, emaku-

meen menpekotasun eta esplotazio egoera eraldatzea da.

Hortaz, euskal feminista eta sindikalista naitenez gero, bereziki kezkatzen nauten kontu bi eztabaidagai jarri nahiko nituzke. Lehenbizikoa: eraso neoliberalak, elite gero eta txikiago baten irabazi tasa eta boterea handitzeko sekulako anbizioaz, gizakien bizi eta harreman esparruetan izugarrizko kontraesanak sortzen ditu. Eraso honen kontra borrokatzea justizian oinarritutako harreman sozialak erdietsi nahi ditugun sektore eta talde sozialok konpartitzen dugun premia bihurtu da. Hau da, esparru ezberdinen emantzipazio

edo protesta nahiak bateratzen dituen ardatz komuna izan bada eta, hortaz, bizitza zein justizia defendatzeko xedez, bat egingo duten estrategiak ehuntzeko erantzukizuna daukagu. Batera-tzen gaituen horretan pentsatzeko momentua da, eredu ekonomiko eta politikoaren aldaketa aldarrikatzen duen eremu sozialean dauden ezberdintasunak kontuan harturik.

Bigarrena feminismoaren berezko dinamikei lotuta dago. Nire ustez, emakumeen egoera ondo ulertzeko eta euren emantzipaziorako bideak jorratu ahal izateko, lanaren sexu banaketak daukan garrantziaz hausnartu beharra daukagu.

FEMINISMOAREN GARAIPENETATIK MARRAZTU BEHARREKO ERRONKAK



LARRAITZ UGARTE ZUBIZARRETA

ABOKATUA ETA FEMINISTA

Feminismoak, edozein mugimendu eraldatzaile bezala, aldaketarako eta iraultzarako bere nahian, egiteko dagoenari besterik ez begiratzeko eta lortutakoari, aldiz, gutxiegi erreparatzeko joera du. Edo, hobeto

esanda, lortutakoarekin inkorformismoa erakusten du. Ikuspegi politikitik horrela behar duelakoan nago, baina, agian, horrela eginez gero, eraldaketarako garrantzitsuak izan daitezkeen hainbat gako aintzazkotzat ez hartze-

ko arriskua dago. Gainera, geure buruei eta lortu dugun guztiari bidegabekia izan liteke eta, are okerrago, aurrera begirako estrategietarako akats praktikoa baina handia ekar lezake.

Azken urteetan borroka feministak helburu handiak atxiki dituela baieztatzen badut, ez dut ezer berririk esan. Duela hamarkada batzuetako aldarrikapenek mendebaldeko herrialde askotan, Europan, baita Euskal Herrian ere, aurrerapen funtsezko eta garrantzitsuak lortu dituzte. Garaipen horiek hainbat arlotan izan dira, jendartearen egituraketan, herri erakundeetan, arlo ekonomikoan eta lege arloan; familiaren egituraketan aldaketak izan dira, kontziliazio politikak sortu dira, aurrerapenak eskubide sozialetan... Jendarte parekidearen aldeko borrokan, pertsona guztien askatasun eta eskubideen, auke-

Gogoratu dezagun jendartean premiazkoa den lanaren dimentsio guztietan sexu banaketa egon badagoela: merkatuan burutzen den eta soldatapekoa den horretan; bizi esparruetan egiten den eta diruz saritzen ez den lanean; baita komunitatean parte hartzearekin zerikusia daukan politiko-sozialean ere. Eremu hauetan guztietan erlazio hierarkikoa dago, non emakumeen lana usurpatzen den. Esfera hauetako bakoitzean emakumeek betetzen duten tokiaren zein lana burutzeko dituzten baldintzen arabera da emakumeen egoera. Hau da, klase arteko esplotazioa eta egitura ekonomikoaren erlazioa aztertzen duen kapitalismoaren kritikan baino ez bagara oinarritzen, ezin izango dugu gure egoera ulertu. Baina, era berean, eremu pribatuaren, familiarren eta gorputzaren azterketa antipatriarkalaren ikuspegi hutsa ere ez da baliagarria izango gure egoera guztiz ulertzeko.

Honela, emakumeek hiru esfera hauetan burutu izan duten lanak ekonomia kapitalisten sorreran eta garapenean funtsezko eragina izan du. Eta, hortaz, gure botereaz jabetzea eta gure ekarpena jendartean aitortua eta diruz saritua izan dadila exijitzea eredu sozialaren aldaketarako bitarteko nagusietako bat da. Feminismoa, eskubide berdintasuna aldarrikatetik, pertsona eta jendartea, oro har, ulertzeko modua ikuspegi propio eta autozentratuaz birplanteatzera pasatu da. Bide honetan, gure historiaz, gure la-

naz eta gure gorputzez jabetu gara, intelektualki, besterik ez bada ere. Eta lana zein ekonomia ez aitortua nabarmendu dugu; hau dela eta, lanaren sexu banaketaren kontra, borrokatzea, bere osotasunean eta esfera guztietan, ardatza izan beharrean, zerbait gaindituztat eta ikuspegi zaharkituei zegokien kontua zelako irudia eman izan da. Azken hamarkadetako gure bizi esperientziak mendealdeko feminismoaren bizi esperientzia ere ezaugarritu du: mendealdeko ekonomia kapitalistetakoz zenbait emakume, autonomia bila edo kapitalak exijitzen zuen bizi mailari eutsi ahal izateko, sartu izan gara lan merkatura; eta beste hainbat emakumek, seguruenez gehienek, lan merkatuan lanean jarraitu dute, euren biziraupen edo familiarren biziraupen modu bakarra hori baitzen. Esperientzia hau dela eta, feminismoaren parte batek, soldataren aldeko borroka (soldata zuzena zein zeharkakoa -zerbitzu sozialak, pentsioak eta prestazioak-) eta emakume guztientzako lan baldintza duin eta sozialki aitortuen aldeko borroka erlatibizatu du, nire ustez.

Angela Davis hemen egon izanak feminismoaren analisiari eta praktikari zenbaitetan funtza falta izan zaiela eta arrazakeriaz jokatu izan duela gogorarazi digu. Baita lanaren sexu banaketari dagokionez ere. Etxeko lana esperientzia unibertsal eta bakarra bailitzan ulertu izan dugu, baina emakumeek, historian zehar, era ezberdi-

netan burutu izan dugu, segun eta zein zen gure klasea, gure arraza edo gure jaioterria. Etxeko lan esklusibo eta doakoaren estereotipoa mendealdeko familia burgesetako emakumeen esperientziari dagokio. Gaur egun zaintzaren ekonomian eta soldatapeko klase tradizionalaren eskubide sozio-laboreetan zentratzeak ez ditu asetzen emakume askoren premiak: emakume langileak, prekarioak edota migratuak. Gaur, inoiz baino gehiago, kolektibo hauek dira politika neoliberalen eta bizitzaren arteko oreka hauskorrari eusten dion bisagra. Mugimendu feministak esparru honetan ez badu diskurtso eta praktika iraunkorra egiten, sindikalismoak eta ezkerreko alderdi politikoek ez dituzte lanaren sexu banaketari lotuta dauden arazoak lehenetsiko. Adibideak soberan ditugu, kapitalak beti, eta eragile sozial tradizionalek funtsezko momentuetan, euren genero interesak lehenesten dituzte, gure interesen kaltetan.

Angela Davisen bisita izan dadila guretzat baliagarria, talentu handiko honelako emakumeek ematen diguten adibidean geure burua indartzeko ez ezik, beste hau gogoratzeko ere bai: sexu, klase eta arraza harreman sozialek elkar osatzen dutela, elkar osagarritzen dutela eta elkarrekin antolatzen dutela lan banaketa esfera guztietan. Euskal emakumeok burujabetza eta boterea aldarrikatzen ditugu, geure etorkizunaren jabe izateko eta jendarte justua eraiki ahal izateko; protagonistak izan nahi dugu eta izan behar dugu, eta, horretarako, feminismoak gu guztion aurrean eta gure komunitatearen aurrean hartzen duen erantzukizuna lehenetsi behar du. ■



Mundu osoan zehar, sindikatuak erasopean egon dira, noski. Neoliberalismoaren aroa da hau. Kapitalismo globalaren garaia da hau. Esan bezala, 70. hamarkadan hiru langileetik bat sindikatuta zegoen eta egun hamar langileetik bat. Aro berri honetan indibidualismoan sakondu egin da eta hau pentsamolde neoliberalen eragin zuzena da. Eta feminismoak aldaketa erradikalari bide emango liekeen komunitate eta jendarte eredu hauek eraikitzeke zailtasunak eragiten dituen indibidualismo mota honi aurre egiteko tresnak eskaintzen dizkigu.

Angela Davis

ra berdintasunaren alde gaudenontzat ez dira nahikoak, baina hor daude.

Nahiko ez izatearen errua zapalkuntza estrukturalari egozten diogu, sistema kapitalista eta neoliberalaz, patriarkatuaz mintzo gara... Mugimendu feministak politika publikoak aldatzera bideratutako diskurtsoak landu ditu eta maizegi ez gara jabetzen gure diskurtsoa jaso behar duen horrek ez gaituela ulertzen, gure helburua hark gu ulertzea izanda. Batik bat helburu hori emakumeengana iristea, hauek pairatzen duten zapalkuntzaz jabetzea eta boteretzea denean.

Diskurtsoaren garrantziaz hitz egin nahi dut, izan ere feminismoaren garaipenik handiena bere diskurtsoa hegemoniko bilakatu izana baita. Beste borroka askok ez bezala, feminismoak, bere tamaina antolatuan txikia izanik ere, lortu duena mugimendu eraldatzailerik guztiek nahi lukete lortu: diskurtso minoritarioa izatetik hegemoniko bihurtzea. Zentzu honetan, feminismoak iraultza garrantzitsua egin du: bere diskurtsoa (ñabarduraz ñabardura) jendarte osoaren diskurtso bilakatu da, politikoki zuzena denaren eremuan sartu da. Eta hori ez da gutxi. Badakigu teoriarik horrela izan arren, praktikara jaistean arazoak sortzen

direla (direla politika publiko diskriminatzaileak, direla bikote harremanetako jarrera zapaltzaileak), baina, behintzat, diskurtsoak mentalitate kolektiboan eragina izan du.

Horrek aurrean dauden erronkei erraztasun ugari eman diezazkieke eta mugimendu feministak, errealitate horretaz kontziente, aldarrikapen hutsetik maila propositibora igaro eta maila propositibo hori ahalik eta jendarte esparru zabalarenarekin partekatu behar du: nazio askapen mugimenduarekin, euskalgintzarekin, sindikatuarekin, gazte elkarteekin edota emakume norbanakoekin. Konplizitate horiek josi eta saretu behar ditu mugimendu feministak, hegemonikoa den diskurtso horri diskurtso propositibo landu eta zehatzak gehitzeko. Diskurtsoaz gain, praktiketan, moldeetan eta borroketan marginalitatea utzi (marginala, bazterrean zentzuan diot, hau da, minoritario zentzuan) eta hegemonikoa izateak duen indarraz jokatu behar du. Finean, jendartearen gehiengoaren adostasunak ematen dion legimititateaz kontziente jokatzeke garaia du. ■

IRAULTZA TXIKIAK HANDIA KOLPATZEKO



ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

“GURE KABUZ ALA HIL”-EKO EGILEETAKO BAT ETA HERRI MUGIMENDUETAKO KIDEA

Azken urtebetean tokatu zait, beste bost lagunekin batera, txikitik hasitako hainbat proiektu ezagutzea. Ablitasetik Behauseraino egindako bidean zehar topatu ditugu, landa proiektuak zein urbanoak. Nork esango zigun orain urte gutxi beroaldi ekonomikoan hazi eta hezitakooi gaur txikitasunari horrenbesteko handitasuna emango genionik?

Badakigu proiektu horiek oraindik ere iriak baino ez direla, eta irlek beren mugak dituztela. Jakitun gara irla horiek dakartzaten aldaketak behar-beharrezkoak ditugula, baina ez dela nahikoa; sinetsita baikaude eraldaketak errokoa izan behar duela, iraultzak kapitalismo heteropatriarkala suntsitzea izan behar duela, edo ez dela izango. Horretarako, orde, baldintzak eraiki behar dira. Sistema, tamalez, ez da bihar eroriko. Bultzatzen beharko zaio, alde guztietatik eta gogor bultzatzen ere, pareta sendoa baitago eraikita.

Eta nola egingo diogu aurre makinaria guztia martxan duen munstroari? Zertaz ari gara “baldintzak” diogunean? Bada hasiera batean iriak izango diren eta pixkanaka saretzen eta sendotzen joango diren horiez ari gara. Eguneroko iraultza txikiak zentrori ekartzeaz. Eguneroko behetik, oinarritik, txikitik egiten ditugun pausoek berebiziko garrantzia dute erroko eraldaketaren norabidean. Helburua sistema kapitalista heteropatriarkala suntsitzea izanik, bide horretan garaipen txikiak lortzen joan behar dugu; sistema pixkanaka pitzatzen, momentuan ezer gutxi irudituta ere horma sendoa arrakalak irekitzen proiektu independente eta aniztatetik, bakoitzak bere pausoak emanda.

Ez da kasualitatea galdera eta eztabaida hauek mahai gainean orain eta hemen jartzea. Batetik, tarteko daukagu 2008an lehertu zen krisi ekonomiko eta finantziario globala, eta horrek berarekin batera komunitate moduan ekarri duen prekarizazioa, eta krisi pertsonalak. Eta bestetik,

Euskal Herriko egoera politikoaren aldaketa daukagu. Gure herrian urte luzez galderak eta eragiteko moduak era zehatz batean planteatu dira, eta orain, galderak aldatu direnean, erantzun berriak dauzkagu. Urte luzez izan dugu borroka zentral bat Euskal Herrian, letra larri markatutako BORROKA. Eta eragin-gune guztiek zuten helburutzat hura osatzea. Beraz, eragin-gune horiek beren baitan galtzen zuten protagonismoa, indarrak BORROKA nagusian inbertiturik. Gaur egun, borroka letra larri formula galduta duenean, letra larriak handi horri baino, eguneroko elikatzen zuten txiki horiei jarri behar dizkiegula ulertu da. Garrantzia eman behar diogula borroka bakoitzari, indartsu egon behar duela txiki bakoitzak.

Ustezko erosotasunetik botatzen gaituztenean, hasierako kolpea gogorra bada ere, ondoren erreakzioa heltzen da; eta deserosotasunetik ematen diren erantzun eta proiektuak askotan eder eta indartsuagoak izan ohi dira. Eta inoiz aurrean izan dugun sistema-krisi honek alde onik badu, horixe da: erreakzionatzen hasi garela. Hasi esan dut, orde, hasi baino ez. Gutxi ez bada ere, iriak dira oraindik. Eta geroz eta irla gehiago egoztena komeni da, euren artean sare sendoak osatzen joan eta ahal den neurrian elkarlanean aurrera egin. Baina irla horien azalera ere handitu beharra dago, eta hori ez dago proiektu edo eragile horietako kideen esku besterik ez. Norbanako bakoitzaren eguneroko praktiketatik eragin dezakegu batera edo bestera, zuzenean edo zeharka, ahal dugun neurrian, eta gure kontraesan guztiak bizkarrean ditugula.

Eta askotan esango digute “bai, oso ondo, baina hori ez da erroko aldaketa eta ez dii balio”. Ados egon naiteke ez dela erroko aldaketa eta, beraz, ez duela azken helburua betetzen. Baina niri balio ez didana da gaur erroko aldaketa ez denez, baztertu eta lehengoarekin segitzeak; “azken batez, hori egiteko lehengoan segituta hobe”? Ekiteko unea da. Gure kabuz ala hil. ■

“
Beti interesatu zait
mugen gurutzatze
edo mugen lotura
horiek egitea, egun, parametro
feministetan
interseksionalitate gisa
ezagutzen duguna.
Marxismoa, internazionalismoa,
feminismoa,
beltzen askapena, langile
klasearen askapena, genero
askapena.

Angela Davis

ESPETXEA, BEGIRADA FEMINISTATIK: EMAKUMEON GORPUTZ KONTROLATUAK



IRATI TOBAR EGUZKITZA

EZKER ABERTZALEKO KIDE FEMINISTA

Hasteko eta behin, eskerrik asko Angela Davis, egin diguzun bisitagatik eta ekarpenagatik. Hausnarketa ezberdinak egiten lagundu diguzu: espetxearen abolizionismoari buruz; zer nolako justizia, nola eta zertarako nahi dugun galdetu diegu geure buruari; eta jendarte batean dauden gatazka sozial eta ekonomikoekin zer egin eta nola kudeatu nahi ditugun pentsarazi diguzu. Finean, sortu nahi dugun jendarte eredu alternatibo horren eraikuntzan (Euskal Estatu Feminista) pentsatzen jarri gara.

Emakumea eta espetxearen inguruan ari-tu ginen Angelarekin; kide zein aliatu feminista ezberdinekin hitz egin eta hausnartzen dugun gaia da.

Nik, buruan bueltaka daukadan hausnarketa bat ekarri nahi dut, kolektiboan eraikia dena. Espetxe sistemak, zein errepresioak oro har, emakumearengan duen eraginaren inguruan hausnartzean oso grafikoa den elementu bat etortzen zaidalako burura: gure gorputzetan duen eragina.

Errepresioak emakumeengan duen ondorio nagusi bat gure gorputzen inguruko kontro-

la da. Espetxean etengabea da: janaria, medikalizazio eta ondoriozko sedazio etengabea, desioaren galera, sexualitatearen mugapena, aldaketa hormonalak (hilekoa ez izatea, ilea gehiago erortzea), objektu sexual gisa sentitzea (espetxe mistoetan gizonen aurretik pasatzean) zein objektu izatea, erabakiak ez daudelako gure esku (oso oso gutxi izaten dira). Ezin aipatu gabe utzi, honek guztiak emakumeon autoestimuan duen eragin kaltegarria.

Hau, nola ez, sistema heteropatriarkal, klasista eta arrazistaren baitan, eta esleitu zaizkigun genero rol batzuk transgreditzen ditugun testuinguruan gertatzen zaigu: emakumea ez da delitugilea, ez berak burujabeki hartutako erabakiaren ondorioz, behintzat; eta gainera, emakume askok kulpaz bizi izaten dute (zaintza lanak eta familiaren ardura nahi bezala ezin betetzearen ondorioz).

Espetxeaz gain, gure gorputzen gaineko kontrol hori sistematikoki bizi dugu emakumeok, egiturazkoa den zerbait da. Eta errepresioari loturik, tortura sexisten bitartez zein jazarpenaren bitartez lortzen den gure gorputzen gaineko kontrola, Estatuak eragiten ditugun egiturazko indarkeria matxista instituzional

lazgarriena da. Zenbat gorputz uzkurto, gogor, tentso ikusi eta bizi izan ditugu hemen gauden emakumeok? Ondorioak lehen aipaturikoak dira.

Eta emakume feminista, militante eta gazte moduan herri honen askapen mugimenduan jaso dudan jakintza kolektibo bat gogora ekartzea besterik ez daukat. Errepresioak gudan hartu duen edozein formari, eta gure gorputzen kontrol horien guztien aurrean, zein kasurik lazgarrien aurrean, biziraun eta berreraiki diren emakume askok feminismotik aurre egin diote. Batetik, gure arteko aliantza feministen bidez, gertatutakoa gure kideekin gainditzeko; bestetik, feminismotik, ideologia gisa, bizi izan duguna kokatzeko eskainitako marko eta tresnekin; eta azkenik, autodefentsa feministaren bitartez.

Autodefentsa feminista izan da, emakume horiek ahalduntzea eta indarra hartzea ekarri duena. Batzuetan inkontzienteki, besteetan, aldiz, kontzienteki eta kolektiboki. Era informalean zein antolatuagoan. Bakardade sentsazioa eta gorputz apurtuak gainditu nahian.

Beldurra lekuz aldatu nahi dugula aldarrikatu dugu mugimendu feministan uda honetan; esleitu zaigun genero rolen ondorioz txikitatik bizi izan dugun gauza bat da, eta errepresioak hori areagotu egin du, beraz, autodefentsa feministarako deialdia luzatu nahi dugu hemen-dik. Autodefentsa feminista, gure gorputzen eta buruen gainean geuk erabaki nahi dugulako. Emakumeok egituraz jasotzen dugun edozein errepresio formari, autodefentsa feministatik erantzungo diogu. Feminismotik izango da edo ez da izango; antikapitalista den feminismotik eta interseksionalitatetik, noski.

Eskerrik asko transgresioan oinarritu den emakume guztion borroka militante eta feministari. ■

“ Ez dut autodefentsaren mende egon nahi emakumeei euren segurtasuna bermatzeko bide moduan. Noski, erabiltzen ikasi behar dugu eta guk geuk geure burua defendatzeko boterea garatu behar dugu, baina, aldi berean, genero indarkeria errotik aterata duen jendarte baterantz jo behar dugu.

Angela Davis

ESPETXEETAKO ITXARONGELAK EMAKUMEZ BETETA DAUDE



OIHANA ETXEBARRIETA LEGRAND

EZKER ABERTZALEKO ETA BILGUNE FEMINISTAKO KIDEA

Emakumeok gatazka politikoetan izan dugun, edota momentu honetan dugun parte-hartzeaz, jarduteak bizitzaren alor eta funtzio guztiak aztertzea eskatzen digu. Hamaika izan dira ezarritako rolak irauli eta euren ahotsa entzunarazteko espazio publikoa okupatu dutenak, bide honetan traba ugari topatu dituztelarik. Zego-kien rolari muzin egin eta euren herriaren askapenaren alde armak hartu dituzten emakumeek hitz egin dugu, baita euren borroka-kide gizonezkoekin borrokatu eta alderdi politiko eta instituzioetan lan egin dutenez ere. Baina ikusgarritasunik eta aitorpenik gabe borroka egin duenik ere badago; komunitatearen zaintzan, zaurien sendatzean... Militantearen iruditegi maskulinoak emakume militanteei (baita gizonei ere) eragin dien moduan, herriaren eta familiaren zaintzailearen iruditegi femeninoak eragin izan die paper honetan egotea egokitu zaien edo erabaki duten horiei guztiei.

Oso zabala da (baina, aldi berean, ikusezina) zaintza lanetan egon daitezkeen pertsonen kolektiboa, baina gaurkoan, euskal preso politikoen senide eta lagunei begiratu nahi diegu zehazki. Presoen senideen egoera aztertu zuen ikerlan batek zioen moduan, “ez da gauza bera kanpoan dagoena

Angela Davis Euskal Herrian egon den honetan, euskal gatazkaren harira, emakumeon paperaz eta feminismoaz hausnarketatxo bat plazaratzea gustatuko litzaidake. Ziurrenik ezer berririk esango ez diguna, baina aspalditik eztabaida kolektiboan presente egon dena.

Euskal Herriko askatasunaren aldeko borrokan, subjektu nagusia gizona izan da, Gudaria, Itziarren semea. Emakumei bigarren plano bat egotzi digute. Bide honetan, gainera, militante finak izan behar ginela esan digute, noski, beti prisma maskulino batetik baloratua: negar egin behar ez genuela esan digute, gorriak eta bi ikusi, baina guk hortzak estutu, heldu, jarraitu, altxatu... Gizonen pare egoteko esfortzu handiagoak egin behar izan ditugu, gehienetan aitorza eskasa lortu ahal izateko. Hainbat kideren hitzetan: “makina batzuk izan gara”, erritmoa abiadura bizian joan da, produkzio kate baten abiadura hartu izan duelako.

Errepresioa, jazarpena, atxilotetak, tortura, espetxea, erbestea, heriotza, pairatu dugu. Hitz gogorrak eta latzak entzun ditugu. Herri honetan guztiok “oso latza izan da” eta “atznugal” bezalako leloak entzuterako ohitu gara. Baina Itziarren semeak izaten erakutsi diguten arren, ni ez naiz inoiz Itziarren seme sentitu. Itziarren alaba akaso. Niretzat, Itziar bera zein bere alabak izan dira bidean topatu ditudan erreferente nagusiak, sorginak. Oztupoak oztopo, euren begirada konplizeak aurkitu ditut, elkarri besarkadak, negarrak, irribarreak, borrokarako grinak

zainetan bor-bor mantendu dizkidaten emakume miresgarriak izan dira. Euskal Herrian, nazio askapen mugimenduan ibilitako emakumeak asko izan dira, honen eremu eta adierazpen guzti-guztietan: ikastolen sorreretatik hasita, borroka armaturaino; errepresioaren kontrako mugimenduetatik, mugimendu feministaraino; langile mugimendutik, gazte mugimenduraino. Bide oso honetan, beraz, emakumeon ekarpena ezinbestekoa izan da, nahiz eta hau gehienetan ezkutuan geratu den, emakumeon ekarpenari askotan “ez-politiko” deritzote, biktima

bino ez gaituztelako nahi. Batzuetan gure mugimendu propioetan zapaldutzat izan gara hartuak, “koitaduak”. Beste batzuetan, gizon baten ama, arreba edo neska-laguna izatera mugatu gaituzte. Gure ekarpenak, hortaz, geure grinei zein erabakitazunari ez lioke erantzungo, mutil laguna gaizki aukeratzeari baizik. Gainera, askotan gure fisikoaren arabera balioztatuak izan gara, borrokaaren subjektu baino, objektu moduan: itsusiak, lodiak, lizunak...

Gure herriaren kontrako biolentzia sistemati-

SORGIN BATEN KONTAKETA



MARINA SAGASTIZABAL EMILIO-YUS

BILGUNE FEMINISTAKO KIDEA ETA PRESO POLITIKO OHIA

emakumea edo gizonezkoa izatea, eta ez da gauza bera barruan dagoena gizonezkoa edo emakumezkoa izatea¹. Izenburuak iradoki dezakeen moduan, batez ere emakumez osaturiko kolektiboari begiratuko diogu jarraian.

Preso dagoen pertsonaren sostengua, aspektu ekonomiko eta politikoak dituen arren, ikusezinak diren zaintza lanek osatuko dute batez ere (paketeak prestatzea, bisitetarako lagunen zerrendak kudeatzea, bidaiak antolatzea, gutunak idaztea, eztabaida politikoetan parte hartzen duela ziurtatzea, liburuak lortzea...). Lan hauek, presoak bikotekiderik izatekotan, emakumezko bikotekideen bizitzaren erdigunean kokatzen dira batez ere. Zaintza lan hauek konpartitzeko ahaleginak dauden arren, pisurik handiena emakumeengan geratzen da eta, beraz, lanak banatzekotan presoaren amaren eta neska bikotekidearen artean izango da.

Esan dugun moduan, presoaren eta haren bikotekidearen estereotipo konkretuak daude sor-

tuak, eta azken hau triste eta "itxaroten" dagoen neska zaintzaile moduan irudikatzen dugu. Estereotipo hauek eragin handia daukate gu guztiongan eta, beraz, presoaren bikotekideak, bere kabuz, rol batzuk har ditzake, hala nola disfrutatzeko duen kapazitatea murriztea ("bestea sufritzen badago ni ezin naiz pozik bizi"); zaintza lan guztiak "hala nahi duelako" bere gain hartzea... Baina, aldi berean, rol hauek betetzeko nolabaiteko presioa egongo da inguru hurbilaren partetik. Babes sareez ari naiz, bai presoaren zein bere senideen ongizatea nahi duten pertsonen sareez. Hauek, laguntza eta laguntasuna eskaini nahi izaten dute, baina batzuetan, "gehiegizko" konfiantzaz, babesaren eta intimitatearen arteko muga lausoa pasatuko dute, eta bikotekideak harremana nola garatzen duen kontrolatuko dute. Horretaz gain, askotan, presoaren izaera erdigunean kokatzen dugu, bikotekidearen izaera ezabaturik. Zenbat aldiz galdetu diogu preso baten senideren bati zer moduz dagoen preso dagoen pertsona, bera nola dagoen galdetu aurretik? "Ni" izateari utzi eta "X presoaren bikotekidea" izatera pasatu direla sumatu dute askok.

Azken urteetan oztopo eta gatazka hauek pixkanaka azaleratzen hasi gara esango nuke, baina asko daukagu egiteko oraindik. Maitasun erromantikoaren baitan haziak izan garen jendarte honetan, bestelako harremanak kudeatzeak izugarrizko zailtasunak ditu guztiontzako. Oraindik ere harremantzeko eredu konkretua ulertzen dugu (heterosexuala, lanen banaketa generikoa izango duena, elkarren osagarria, binarioa...) eta espetxea tarteko garatzen diren harremanetan honek eragina izango du, bai espetxeak berak hala bultzatuko duelako, baina baita gudan eragina izango duelako ere. Aldi berean, emakumeak, zaintzarako etengabeko prestasuna eta indarra dutela imajinatzen dugu, baina haiek ere zainduak izan behar dute. Gure esku dago, bai indibidualki zein kolektiboki, alde batetik, zaintza lanek duten garrantziaz ohartu eta gatazka egoeran betetzen duten papera kontuan hartzea (sexu-genero harremanek bultzatutako estereotipoak indartu gabe beti ere); eta, beste aldetik, lan hauek garatzeko bultzatu ditzakegun aliantza eta babes (eta ez kontrol) sareak sustatzen ahalegintzea, itxarongelak, emakumez (eta gizonez) husten ditugun arte. ■

1 Observatori del sistema penal i dels drets humans (2005) : La cárcel en el entorno familiar

koak helburu zehatza izan du: gorputz sumisoak, dozilak, isilak... sortzea. Bientzia hau, noski, inoiz ez da neutroa izan, sexismoari lotu baitzaio beti. Horrela, espetxeak genero rola birprogramatzeko munstro erraldoiak direla ikusi dugu. Hauetan, emakumeak interlokutore baliagarritzat hartzen ez gaituztela konprobatu, are gutxiago, gazte eta emakume izanik. Isolamendua sufritu dugu, are isolatuagoak egon gara, gure rolerik apurtzeagatik are gogorrago zigortuak izan gara; izan ere, jakin badakite, elkarrekin gaudenean indartsuak gara, botereak, desobedienteak, subertsiboak...

Bide honetan, baina, errepresioak gudan utzitako zantzuak nabariak dira, sufritu eta sentitu ditugu, nahiz eta ezkutatuta ere egin: gorde, isildu, estali, hondoratu... etsaiari gure mina, gure ahultasuna, ezin diogula erakutsi esan digute, gu irabazi gaituela islatzen omen du eta. Beraz, samina zure barrenaren parte bihurtzen da, oinazea gogortu, gotortu eta harri izan arte. Hamaika eraso martxan jartzen dituzte gure kontra eta askok azalean markarik utzi ez arren, ez dira horregatik sendatzen errazagoak, barruan tatuatuta geratzen baitira. Gainera, indarrean izan dugun saminarena eta torturaren errelatoak (Itziarren semearenak) min hauek identifikatzea eta azaleratzea oztopatu du, eta honek askotan bere ondorioak areagotu ditu. Gorka Zabalak oso ongi azaldu duenez, torturak pertsona eremu intimoenean apurtzen du eta isilpean bizi dugun errealitate mingarria da. Pertsonala eta intimoa den heinean, ez zaio dimentsio politikorik aitortzen,

ezkutatuta beharra dago, gerra garaian ezin baita ahultasunik erakutsi.

Feminismoak, aldiz, hauskortasuna, ahultasuna, gure izatean txertatua dugula azpimarratzen du, pertsonaren ezinbesteko ezaugarria baita. Pertsonak elkarren menpekoak gara, zauriak sendatzeko beste pertsonen zaintza eta begirunea behar dugu, negar egin, barruak hustu. Ez gara makinak. Eta etsaiarekin ezberdintzen gaituena horixe da: gu pertsonak gara, gure ahultasun eta akatsekin, eta hauek ez ditugu zertan ezkutatuta behar, gure ahultasuna onartzeak boteretzen gaituelako. Apurtu gara agerian utzi arren, erori egin garen arren, berriz altxatu eta gorantz eroriko gara esan nahi duelako, bidea egiten jarraitzen dugulako. Zeramika japoniarren antzera, gure zauriek utzitako markak estali gabe, hauek onartzeak ederrago egingo gaitu. Feminismorik gabe, boteretze prozesu pertsonal zein kolektibo horiek gabe, ni oraindik altxatu ezinean ibiliko nintzateke. Orain aldiz, gorantz erortzeko prest nago.

Hortaz, Angela Davisek berak esan duenez, errepresioak eta indarkeriak badu intimoak eta pertsonalak, ustez eremu pribatua dena eremu publikoarekin harremanetan baitago. Beraz, herri gisa zauri pertsonal zein kolektiboak sendatu beharrean gaude, eta hori elkarrekin egin behar dugu, gure agenda politikoan sartu eta elkarren zaintzari garrantzia emanda. Gure bizitzak eta bizia orokorrean erdigunean jarri behar ditugu, hauek garrantzia izan behar dutelako, garrantzia eman behar diegulako, finean, "basque lives matter".

Hortaz, etorkizuneko Euskal Herria eraikitze-ra goazen honetan, geure buruari zera galdetu beharko genioke: bakeaz hitz egiten dugunean, zer ulertzen dugu? Izan ere, Iruñean ozen esan genuenez, bake prozesua burura eramanda, emakumeok hilko, bortxatuko, mespretxatuko ote gaituzte oraindik ere, euskal gizarte normalizatuan? Hortaz, berriz ere Angela Davisek esan duenez, "preso guztiak kalean egoteak ez du ziurtatzen errotutako arazo sozial eta ekonomikoak gainditzea", hauek lehenbailehen kaleratu behar ditugun arren, bakerako urratsak feminismoak ere egin beharrean gaude, eta bazterretan kokatuak dauden subjektuak errelato horren parte egin.

Gainera, eztabaida estrategikoetan buru belarri gabilztan honetan, "Politikaz" -hitz larritz idatzia- mintzo gara, baina pertsonala albo batean uzten ari gara berriz ere, feminismoak argi erakutsi arren pertsonalak ere baduela politikoak. Hori dela eta, gure eztabaida prozesuetan arlo pertsonalak ere hitz egin beharko genuke: nola gauden, nola sentitzen garen, ze behar ditugun... Beraz, estrategia politikoak mintzatu behar gara bai, baina baita saminarene kudeaketaz, elkarri entzuteaz, errespetuaz, ere. Askok sufritu duen eta sufritzen jarraitzen duen herria gara bai, baina goazen sufrimendu horretatik zerbait positibo eta indartsu ateratzera, ilusioa berreskuratuz, elkarren artean konplizitateak bilatzera, elkarri ulertzera, besarkatzera, saretzera, aliatzera... Euskal Herriko burujabetzaren bidean, feminismoak egingo gaituelako herri! ■

ESTRATEGIA INDEPENDETISTA FEMINISTON BOTERETZEAREN BIDEAN



OIAKUE AZPIRI ROBLES
SORTUKO POLITIKA FEMINISTAKO ARDURADUNA

Prozesu independentista eraldatzailea martxan jarri nahi dugu, prozesu demokratiko iraultzailea. Prozesu demokratikoak emakumeon eskubide, behar eta interesei erantzun beharko dio. Ezker Abertzalearen estrategia berritu hori, feminista ezinbestean, emakumeen egungo beharrei eta guztion artean adostutako estrategiaren norabideari egokitzea da aurrean dugun erronka.

Definitu dugun eta gure helburua den Euskal Sozialismoak oinarri oinarrian du feminismoak sistema kapitalista heteropatriarkalaren botere harremanak iraultzeko egiten duen ekarpena. Jendarte eredu patriarkala gainditutako eta botere harremanak irautila, bizitza duina erdigunean duen eta emakume eta gizonen arteko harreman berrietan oinarrituko den jendartea dugu helburu. Egungo jendartearen eraldaketa feminista bultzatuko dugu euskal sozialismoaren norabidean.

Kontzienteak gara, ezker abertzalea jendartetik isolatua ez dagoen mugimendua garen heinean, guk ere gustuko ez ditugun ikuspegi, praktika eta botere harremanak erreproduzitzen ditugula. Praktika feministaren bitartez diskriminazio eta botere harreman hierarkikoe-

Euskarak eta feminismoak, harrigarriki, oraintsu arte ez dute bidean elkar topatu. Harrigarriki diogu, batetik bi militantzia horiek gorputz berean gertatzen direlako usu, eta bestetik menderakuntzaren aurkako bi borroka izaki, elkarrenganako antzekotasunak ugariak direlako, bai menperatuak diren moduetan, bai menperatzeak sortzen dituen gorputz subordinatu bezatueta, eta, baita subordinazioaren aurka sortu behar den eragile eraldatzaile izaeran ere.

Euskal Herriko politikagintzan, hainbat eremutan *statu quo*-aren eraldaketan ari diren gizarte mugimendu eraldatzaileak, sarri, elkarren berri gutxi izan dute, eta are, elkar zapalduz jardun izan dute askotan. Eta, hala ere, garrantzi eta estrategia maila berera ekarri izan dira, hainbatetan, hainbat borroka, nazio askapenarena eta langile mugimenduarena, esate baterako, 60ko hamarkadaren bukaeran.

Garai bertsuan, 70eko hamarkadan, hainbat emakume feminista zapalkuntza hirukoitzaz hitz egiten hasi ziren, eta klaseari eta nazioari beste bat erantsi zioten: emakume izategatik zapalkuntza, edo gaur egungo hizkerara ekarrita sexu/genero sistemaren arabera. Horrela sortu zen Ipar Euskal Herrian EEBAA (Euskal Emakumeak Beren Askatasunaren Alde) talde feminista, feminismoa eta abertzaletasuna uztartuko zituen lehen taldea.

Hain zuzen, Angela Davis ekintzaile beltza

EUSKALTZALE ETA FEMINISTA



**LOREA AGIRRE DORRONSORO
ETA IDURRE ESKISABEL LARRAÑAGA**
JAKIN ALDIZKARIKO ZUZENDARI ETA EHUKO IRAKASLE HURRENEZ HURREN

izango dute erreferentzien artean, eta haren 'Women, race and class' (1981) lana, azken urteetan egin den bezala, feminismoa problematizatu eta botere eta zapalkuntza sare konplexuetan ezartzeko obra giltzarrietako bat. Arrazagatik zapalkuntza aipatzen du Davisek, eta nazioagatik emakume abertzaleek. Gutasunaren eraikuntza kolektiboarekin zerikusia dute biek hala biek eta baita gutasun horretako eraikuntza indibidualarekin

ere. Maila bereko zapalkuntza eta aldarrikapenak bilakatzen dira.

Beraz, Euskal Herriko feminismoaren ildo batek oso aspalditik du zapalkuntza hirukoitza bere egina. Egia da, harrigarriki egia, sektore horretatik herri edo nazio gisako zapalkuntza oso gutxitan irakurri dela oraintsu arte hizkuntza edota hiztun zapalkuntza gisa. Harrigarriki diogu, hain justu, gure kasuan menderakun-

tan oinarritzen den sistema kapitalisa hetero-patriarkala gainditzera goaz.

FEMINISTOK ERABAKI GUNEETAN

Feministok erabaki guneetan egoteko gure erakundeetan militante feministak behar dira eta, horretarako, gure erakundeen antolaketa androzentrikoak errotik aldatzea premiazkoa da.

Militantzia eredia eraldatzea ere ezinbestekoa da; hortaz, bizitza eta pertsonak erdigunean jarriko dituen eredia eraikitze bideari hasiera emango diogu horrela. Zaintza eta bateragarritasuna baztertzeko ez dituen erakunde bizigarriago batean, botere harreman orekatu eta osasuntsuagoak biziko ditugu.

Erakunde eta praktika feministak ez ditugu egun batetik bestera lortuko, ahalduz pertsonalak laguntzeko ezagutza eta trebakuntza beharrezkoak izango dira.

FEMINISMOA ETA FEMINISTAK ERREFERENTE

Boterea gutxi batzuen eskutik askoren eskue-

tara igarotzeko unea da, ardurak partekatze eta lidergoak kolektibizatzeko. Ahalduz pertsonaetik jabeak kolektibora salto egiteko estrategia eta baliabideak bermatu behar dira.

Aurreko belaunaldietako emakume eta feministekin ezagutza eta esperientzia partekatuz, memoria feminista kolektiboa berreskuratu eta lidergo berriak sortzera goaz.

Ez litzateke erreferente feministarik izango feministok saretu ezean, hasi ginenean baino gehiago gara baina gehiago izan behar dugu. Erronka honetan, iraganean militantzia politikoa mistoa utzi zuten kideon elkarlana behar dugu, talde feministetan garatutako ahalduzkoak estrategia eta antolaketa independentistan erabat baliagarriak izango baitzaizkigu.

ESTRATEGIA INDEPENDENTISTA

Herrigintzatik estatugintza garatuz estrategia independentista eraldatzailea burutzea goaz. Estatuek ez dute eskenatoki demokratikorik eskainiko, ez digute erabakitzeko eskubiderik aitoruko; ondorioz, burujabe arituz eskuratuko dugu herri hau askapenera eramatea. Herrigintzatik, txikitik, herrietatik, periferietatik, ahalduzko-

lektiboa garatzeko prozesuari ekingo diogu. Horizontaltasunean, gardentasunean, erabakien kolektibizatzeko oinarritutako herri jabeakuntzaren bidez eraldaketa feminista burutzea goaz. Herrigintza bera tresna ere bada, prozesu feminista garatzea azken batean. Herrigintzaz, ibilbideari eta prozesuei garrantzia emanez gero, praktika eta eraldaketa feminista gauzatzen ariko gara.

Emakumeok eta eragile feministak auzolana eta estatu propio baten baitan herri hau nola eraikiko dugun hausnartu, eztabaidatu eta eraikitzea goaz.

Mugimendu Feministak egindako borroka-ri esker, jendartean eta gure antolakundeetan metatutako botereaz prozesua abiarazten ari gara. Hau etorkizunean burujabetza feminista eskuratzeko ezinbesteko aliantza izango da.

Bukatze, Abianen Landakoko ekitaldian izaskun Guarrotxenak aipatutako hitzak ekarri nahi ditut: *“Ezker abertzaleko antolakunde guztietan eta gure praktika politiko osoan feminismoa txertatzea ezinbestekoa da eta guztion ardurara da honako erronkari aurre egitea, gizon eta emakumeona, eraldaketa honetatik, mugimendua ez ezik, denok izango baikara garaile.”* ■

tzarako eremu pribilegiatuenetako bat baita hiztunaren planoa, eta horrenbestez baita erresistentzia eta eraldaketarako eremu pribilegiatua ere.

Hizkuntzaren eta hiztunaren planoa oso 'apropos' da azpiratze mekanismoak aplikatzeko. Hizkuntza bat edo beste erabiltzeko oso ondorio desberdinak izan ditzake indibidualki eta sozialki: hiztun menperatu izatetik hiztun menperatzailea izateraino, eta hiritar subordinatu izatetik hegemoniko izateraino. Beste modu batera ere esan dezakegu: hizkuntza batek edo besteak gizartearen leku batean edo bestean kokatzen zaitu, bazterretan edo erdigunean jartzen zaitu. Hizkuntzak herritar eta hiritar gisara eraikitzen gaitu. Herritar gisa gutasun bateko identifikazioa indartzen duelako, eta hiritar gisa gizarte bateko eskubide eta obligazio zibildun kide egiten zaituelako. Eta horrenbestez, hizkuntza bat edo beste erabili eskubidez jantzi edo eskubide gabetzen zaitu. Ez al da berdin-berdin gertatzen sexu-generoaren desberdinkeria aplikazioaren eze?

IDENTITATETIK JUSTIZIA SOZIALERA, NAURALIZAZIO DESERAIZ

Emakume izatea edo ez-gizon izatea identitate kontu bat baino ez da izan denbora askoan, emakume eta ez-gizonen kontu partikular bat, berezkoa, feminismoak justizia sozialaren eta demokraziaren terminoetara ekarri duen arte. Eta hortxe dago partikular

izatetik unibertsal izateko saltoaren oinarria.

Sistema menperatzaile horren mekanismo nagusia naturalizazioa da, sexu-generoaren gaian eta hizkuntzarenean, bietan kalkoan aplikatzen dena. Naturalizazioak zera dio: subordinazio egoeran zaude emakume zarelako, ze berezko ezaugarriak dituzu horretarako. Hau da naturaz, biologikoki, jaiotzez, genetikoki zara zaren bezalakoa, eta ezaugarri horien arabera betetzen dituzun funtzioek botere sarean menpeko eta bazterreko posizioan jartzen zaituzte. Ezin zara aldatu. Esentzia kontua da, emakumetasuna, feminitatea.

Berdin euskaldun bezala: subordinazio egoeran zaude euskaldun zarelako, izan ere euskarak berez dituen ezaugarriek horretara eramaten zaitu, eta ezaugarri horien arabera betetzen dituzun funtzioek botere sarean bazterrean kokatzea eramaten zaitu. Kurioski –ironiaz diogu– emakumea-ri eta euskarara –beraz hiztunari– erantsi izan zaizkion menperakuntzarako tasunak berberak dira, batzuk esate arren, ahultasuna, txikitasuna, ez-oldarkortasuna, naturaltasuna, ez-razionala izatea, etxekotasuna, bokazio publikorik ez izatea.

Gainera, generoa eta hizkuntza elkar gurtzatzen dira bereziki bi hizkuntza baino gehiago dauden gizarteetan, eta hizkuntza horietako bat minorizatua denean. Lotura konplexua eta estua da generoa eta hizkuntza minorizatua-

ren artean. Euskararen hautua gizonezko izan edo emakumezko izan desberdina dela ikusten hasiak gara. Eta hautu horretan generoarekin lotutako desberdinkeria eta desorekak eragina dute hizkuntzan eta baita ingurune soziolinguistikoak, baina baita prestigio eta pribilegioen banaketak ere.

Feminismoak subordinaziotik eragile edo agente eraldatzaile izateko lau urrats markatzen ditu: jakin, jabetu, ahalduz eta botere-etu. Jakin, emakumea –edota euskal hiztuna–menpeko egoeran dagoela; jabetu zu zarelako menpeko egoeran dagoen emakume hori –edo hiztun hori– edo zure ondoan dagoena; ahalduz, tresna teoriko-praktikoak landuz menderakuntza egoerei aurre egin ahal izateko. Eta boteretzeak, kolektibo edota gizarte gisa boterearen kudeaketa eta botere harreman justuago eta berdinezaleagoen posibilitatea eta beharra dakar berarekin. Kontzientziazioaren ohiko definiziotik harago doa. Parte hartze politiko formala aberastu eta gaitu egin du, eta eskubide urraketak eta testuinguru politiko eta kultural orokorra aztertu eta eraldaketa proposatzen du.

Euskal hiztunak boteretzea behar du, euskarak boterea behar du, nola emakumeak. Horregatik hiztun eta emakume gisa boteretzeak herritar gisa boteretzea dakar gizarte justuago baten bilaketan. Eta horregatik euskaltzale garelako gara feminista, eta, feminista garelako gara euskaltzale. ■

BOTEREAZ HAUSNARTZEN: ZER, NOLA ETA NORK

Ezker abertzaleak, askapen sozial eta nazionala helburu duen mugimendua izanik, ezinbestekoa du boterearen gaia lehen planora ekartzea. Azken finean, munduaren zati txiki honetako errealitatea eraldatzea helburutzat dugunok, ongi aski dakigu botererik gabe ezinezko zaigula transformaziorik burutzea. Botereak aurpegi asko ditu eta guztiok izango ginateke gai maila desberdinetako hamaika botere harreman deskribatzeko. Baina guri interesatzen zaigun boterea, eraldaketaren giltza emango digun boterea, klaseen artean gertatzen den indar harremana dugu. Botere hori eraiki, eskuratu eta berreraiki behar dugu. Nola? Lehenik eta behin, indar harreman horren egoera aztertuz eta ondoren, berau eraiki, eskuratu eta berreraikitzeke estrategia definituz.

Hitz potoloak, bai, baina esan nahi du-danaren oinarria ere bai. Horietan guztietan sakontzeko aukerarik izango ez badut ere, baieztapen borobil horien inguruko zenbait hausnarketa *praktiko* egin nahi nituzke:

- *Ez ginen begiratzeko jaio, mundua eraldatzeko baizik.* Ahaztezina den premisa, gure izaera osatu zuena eta zenbaitetan ahaztu izan duguna. Guztiok dakigu kapitalismo heteropatriarkal eta inperialistak (hemendik aurrera *kapitalismoa*) baliabide asko dituela, alternatibarik ez dagoelako ustea barruraino iltzatu nahi izan digutela eta kasu askotan lortu egin dutela. Baina ez dezagun ahaztu, kapitalismo horrexen oinarria jendarte harremanak baino ez direla eta ez dela izatez berezkoa; alta, kapitalismoa ez da berez desagertuko, eroriko edo suntsituko, bultzada hori guk geuk eman behar baitugu.
- *Estrategia ezinbesteko tresna dugu kapitalismoa gainditzeko.* Estrategiarik gabe ez dago botere eraikitze, eskuratze eta berreraikitze. Estrategiarik gabe ez dago eraldaketarik. Borrokatzeke eta ekiteko nahia izan dezakegu, tripek hala eskatuko digute, eta ez dago gaizki, erresistentzia fase batean bulkada horiek estrategiaren baitan ulertzeraz ere irits gintezke, ezetzaren baieztapenak indartsu egin gaitzake, baina antolaketarik gabe, praktika on batera eramango gaituen are teoria hobeagorik gabe, ezer gutxi irabaz dezakegu kapitalismoaren aurrean.
- *Euskal Herria eraldatzeak mundua eraldatuko du.* Mundu mailako zapaldu guztiei



JONE ETXEBERRIA AGIRRE

SORTUKO SOZIO-EKONOMIA
ARLOKO KIDEA

egin diezaiekegun ekarpen handiena, gu geu zapalkuntza horren aurrean altxatu eta berau gainditzeko da. Europa zaharretik lurralde txikia izanagatik ere, ez dugu soilik gure kultura eta hizkuntzari nolabait eustea lortu, borroka sozial ugariaren erreferentzia izan baikara. Euskal Herria, ordea, erresistentzia eredu izatetik garaipen eredu izatera pasa behar dugu, mundu mailako anai-arreba zapaldu horiek guztiak, izan siriarrak, izan haitiarrak edota espainolak gogoan.

- *Gure interesak ez dira haien interesak.* Langile klasea eta herri sektoreon interesak ez dira haien interesak. IBEX 35eko jauntxoaren interesak ez dira gure interesak. Haiek eta gu definitzeko zailtasun handiak ditugu azkenaldian, azken hamarkada hauetan, eta horrek zer pentsa handia

eman izan digu. Baina ez dezagun pentsa inoiz interes horiek momenturen batean bat egingo dutenik, eta beraz, aliantza "interklasistez" hitz egiten dugunean ere, zorrotzasunez azaldu beharko dugu kasu horretan zeri deitzen diogun klase, gure proiektuak, bai ala bai, antioligarkikoa izan behar baitu.

Hausnarketa *praktiko* deitu ditut, egungo *teoria* askorekin alderatuta, hausnarketa ulerterrazak ez ezik, praxirako ezinbesteko oinarriak iruditzen zaizkidalako eta horiek gabe (beste askorekin batera, noski), nekez ulertu ahal izango dugulako boterea eraiki, eskuratu eta berreraikitzeke marraztu behar dugun estrategian gure alde aurretiko jarrerak duen garrantzia. Zentzu horretan, europar pentsalari garaikide ezagunen lan korapilatsuei baino, eskerrak eman nahi nizkieke pentsalari-militante latinoamerikarrei, euren esker militante politikook ideien borroka munduan geure lekua topatu dugulako.

Eta estrategia marrazteko ate atarian jarraitzeko, hiru esalditako beste sententzia borobil bat:

- 1) ez dugu botererik izango boterea eskuratzeko estrategiara soilik mugatzen bagara;
- 2) ez dugu botererik izango boterea eraikitzeke estrategiara soilik mugatzen bagara;
- 3) ez dugu botererik izango, behin eskuratu eta ez badugu berau berreraikitzeke bidea egiten.

Lehen bideak botere instituzionalaren iruzur axolagabera garamatza (ikus aurreko legegintzaldiko Gipuzkoako adibidea), bigarrenak elite pribilegiatu eta purista bihurtzera eta hirugarrenak ustelkeria, errepresio eta burokrazia sistematikora, zuzen zuzenean. Askapen sozial eta nazionalera eramango gaituen estrategia independentista eraldatzailea beraz, estrategia baino estrategiak edo ardatz sendoz osatutako bakarra izango da.

Eta... Emma Goldmanen dantza, Rosa Luxemburgenen kateak eta Saioa Iraolaren "elkarren aitortza" gisako ekarpenak oinarri, azken konbentzimendua, intuizio sakon batek indartua: emakumeok izango gara estrategia horretan giltzarria. Zergatik? Geu garelako egungo Euskal Herrian benetako eraldaketa pentsatu, sentitu eta burutzeko prest gaude-nak. ■

PATRIARKALA, ARRAZISTA ETA KAPITALISTA IZATEAZ GAIN, BOTEREA HELDUA ERE BADA



AINARA SANTAMARIA BARINAGARREMENTERIA

ERNAIKO KIDEA

Lehendabizi esan nahiko nuke ohorea dela halako erreferente politiko batzuekin solasaldian aritzeko aukera izatea. Bestetik, eskerrak eman nahi dizkizuet azken egunetako ekitaldi guztiak antolatzen zabilzten guztioi.

Nik gazte ikuspegitik hitz egin nahiko nuke boterearen gainean tarte honetan. Izan ere, sarritan ahotan erabiltzen dugun hitza da, baina zer da boterea? Boterea gizona da. Gizon zuria. Eta burgesa. Baina bada boterearen laugarren ezaugarri bat azpimarratu nahiko nukeena: adinarena. Izan ere, gizon zuri eta burges hori, heldua da. Eta hortaz, patriarkala, arrazista eta kapitalista izateaz gain, boterea heldua ere bada.

Agian, askori arrotz begitانتzen zaizuen kontzeptua da botere helduarena; izan ere, sistema trebea da bere ankerkeria eta zapalkuntza ezberdinak ezkutatzan. Botere heldua, klase zapaltzaileak belaunaldi berrien alienazioa lortzeko erabiltzen duen boterea da, sis-

temaren biziraupena horrela bermatzeko. Egunen hamaika aldiz entzuten dugu gazteok “Nik zure adina neukanean gauza bera pentsatzen nuen, baina gerora ikusiko duzu gauzak ez direla horrela” edo “zu gaztea zara eta ez dakizu oraindik”. Eskarmentua aitzakiatzat hartuta, ordena sozioekonomikoari eusten zaio botere helduaren bidez, zaharra ordezkatzeko deza-keen indarraren aurkako boterea baita. Beraz, guk nabarmendu nahiko genuke, elkarrekin gurutzatzen diren zapalkuntza guztien artean, gazteoi zuzenean eragiten digun adinarena ere kontuan izan behar dugula.

Boterea zuria, burgesa, gizona eta heldua dela esaten dugunean, balio kategoriatzuek mintzo gara. Gure ustez, beharrezkoa da balio kategoriatzuek eraldatzea, sozialki zer boteretzen dugun birpentsatzea. Boterea beste modu batean ulertzeaz ari naiz, boterea deseraikitzeaz, balio iraultzaileei boterea egoteaz.

Eta nola egingo dugu hori? Lehendabizi, geure buruak ahaldunduz. Batzuetan boterea

norbaitek emango digula pentsatzen dugu, boterea kanpotik ezartzen den zeozer baillitza. Baina ezin dugu ahaztu gutako bakoitza dela botereetsua eta txikitu diguten botere horretaz jabetu behar garela. Honela, boterea eskuratu behar dugu eta horrekin batera etorriko da aitortza.

Beraz, eraldaketa prozesua geure baitan hasten da, baina horrek ez du esan nahi zer-bait indibiduala izan behar denik; aitzitik, eraldaketa erradikala eta egiazkoa izateko, kolektiboa izan behar da; guztiok egingo duguna eta egitura ezberdinak zeharkatuko dituen. Honela, lehen erronka askapen mugimenduan bertan daukagu: bazterrean kokatuta gauden sektoreei balioa eman eta gazte botereari dagokion aitortza egin behar zaio.

Bide horretan, ezinbestekoa da diskurtso-tik harago helduko diren praktika eraldatzaileak indartzea. Iraultzailea den mugimendua etengabe egon behar da moldatzen, jendar-tea bera ere etengabe ari delako aldatzen. Gazteok etengabeko eraberritze hori bermatu dezakegun sektore garrantzitsua gara, haize berriak belaunaldi berrien bidez etortzen dira eta. Prozesu eratzailearen bidez Euskal Estatuak eraiki nahi badugu, gazteok asmatu gabeko eremu eta borroka asmatzeko subjektua izan behar gara. Horregatik, hautu argia egiten dugu gure etengabeko prekarizazioari amaiera emango dion bizi eredu sortzearen alde, burujabetzan oinarrituta egongo dena eta autogestioa tresna izango duena.

Praktika eraldatzaileei begira, Ernaik, gazte mugimendua dagoen tokietan berau hauspotzeko eta ez dagoenetan sortzeko apustua egiten du. Gazte mugimendua da gazte arazoei aurre egin diezaikeen kontrabotere bakarra. Eta, gure ustez, aurrera begirako estrategia aliantzak eta sareak eraikitzeetik pasa behar da. Elkarrekintza eta elkarlana ezinbesteko osagaiak dira, gazte boterea herri boterearen parte delako bere horretan. Elkarrekintzarako espazioak sortu behar ditugu, fisikoak izan ala ez izan. Elkarrekintza horren bidez proiektu eta alternatiba berriak sortuko ditugu.

Amaitzeko, esan, gazteok etorkizuna izateaz gain, oraina era bagarela eta bide horretan, transmisio uhal barik, botere askatzailea bagarela zuekin guztiokin batera.

Besterik gabe, dena laburtzen duelakoan: hil dezagun aita! ■

“

[...] gazteen lana, orain arrazagatik basakeriaren aurka bereziki bideratuta, baina gazte mugimendu berrien katalizatzaile moduan balio duena; neurri handi batean antikapitalistak eta abolizionistak diren mugimenduak. [...] uste dut helburu hori izan dezakegula: belaunaldi bakoitzak borroka zertxobait urrutiago eraman dezala.

Angela Davis

ESTATUGINTZA FEMINISTAREN HELBURUAK



JULE GOIKOETXEA MENTXAKA

OXFORD UNIBERTSITATEKO IKERTZAILEA ETA EHUKO IRAKASLEA

Independentziaz ari garenean Euskal Demokrazia eraikitzeaz ari gara batzuko, non demokraziak (eta 'euskal' horrek) ez duen egoera estatiko eta absolutoa irudikatzen, erlazio erlatiboa eta dinamikoen multzoa baizik. Zer behar da Euskal Demokratizazioan sakontzeko eta zer erlazio du egungo demokraziak kapitalismoarekin eta patriarkatuarekin. Horiek dira lehen galderak. Emantzipazioa lortu nahi badugu, esplotazio sistema desberdinak identifikatu behar ditugu lehenik. Ezagutzen dugun demokrazia, kapitalista eta patriarkala den heinean, emantzipazio prozesu batek errotiko eraldaketa eskatuko du demo-

krazia pentsatzeko eta praktikatzeko eran. Xede horrekin proposatzen da estatugintza feminista abian jartzea. Bost helburu orokor aipatuko ditut, jakinda helburuak infinituak direla, historikoak bezainbeste. Kronologia moduko batek zeharkatzen ditu helburuak, baina ez da lineala, batzuentzat azken helburua emakumeek gobernatzea izango da, gizonen bezainbesteko botere politiko, publiko eta finantzieroa lortzea; beste batzuentzat, aldiz, emakume-gizon kategoria sozio-ekonomiko eta politikoaren desagertzea. Baina azken hauek ez dute halabeharrez lehen pausua errefusatzeko, are gehiago, emakumeak gobernatzen hastea ezin-

besteko pausu moduan ikusten dute emakume-gizon klase politikoa desegiteko.

1.- *Emakumeak gobernari - kontratu sozialaren ezeztapena:* sistema patriarkala gizonen gobernu da, eta gure gizarte modernoetan "kontratu" sexualean du oinarria (Pateman), hori izanik kontratu sozialaren zutabea (Locke, Rousseau, Rawls, Habermas). Gure gizartean askok gaitzesten dute 'pentsamendu arrazista', ez ordea *pentsamendu heterosexuala* (Wittig), baina hori da kontratu sexualaren funtsa. Pentsamendu heterosexuala "sexu" kategoriaren arabera gizarte antolaketa legitimotzat hartzen duen pentsamendua da eta arrazista "arrazia" kategoriaren arabera antolatzen dena. Alua dutenek (beltzek) dohainik egingo dute lan horrelako gizartean, ez dute jabetzarik edo eskubiderik izango, eta zakila dutenek (zuriek) soldata, eskubideak eta jabetza eduki ahal izango dituzte.

Gure gizarte modernoetako kontratu soziala gizonen arteko kontratua da, zeinaren arabera, gizonena izango den gizartearen, estatuaren, finantzen, familiaren, justiziaren, hedat-

BOTERE(TZE)A FEMINISMOTIK!



AMAIA ZUFIA

BILGUNE FEMINISTAKO KIDEA

Boterearen matxan: Baduzu ala ez, zapaltzailea zara ala zapaldua. Instituzio politikoetan dago edo produkzio bideen jabeagoan edo aparatu kultural-sinbolikoan. Boterea. Konkistatu ala ukatu. Parametro hauetan mugitu dira boterearen inguruko eztabaida kla-

sikoak. Feminismoaren ibilbide zabalean ere gailendu da maiz boterearen inguruko ikuspegi dual eta estatiko hau: emakumeok boterearen biktima hutsak garela, boterea gaitzaren erroa dela eta gu ez garela haren jabe. Baina mugaz beteta dago ulerkeria hori: Emakumeok ez dugu botere-

rik inoiz? Bada, nola bultzatuko dugu behar dugun eraldaketa soziala?

Boterearen ikuskera konplexuagoan sakontzen goaz feminismoan. Boterea ez dago bakarrik Estatu egituretan edo harreman ekonomikoetan, ez soilik goitik behera. Boterea nonahi dago, harreman guztietan zirkulatzen duen indarra da. Elementu ezberdinen arabera botere-harreman anitz daude jendartean, elkarren artean gurutzatzen direnak, norantza ezberdinetan edozein harremanetan. Botere hori egituratzeko zapalkuntza sistemak baliatzen dira, eta hiru eragin-gune nagusi izan ditzake: etxea-familia (harreman afektiboak, eremu "pertsonala-pribatua"...), intimoa (emozioak, autoestimua, nor bere buruarekiko harremana...) eta Estatu-publikoa (instituzioak, legeak, ideologia, moralak, eskolak, eliza, egitura ekonomikoak...).

(G)une askotan, beraz, badugu boterea, zapalduko subjektuok ere bai. Euskal Herrian, feminista asko gara, masa kritikoa izugarri handitu dela esango nuke, eremu gehienetara hedaturik. Baina askotan ez dugu behar besteko gaitasun politiko edo aitortzarik, hau da, botererik, nahi

bideen eta ekonomiaren gobernuak. Gizonen arteko kontratu horren arabera, gizon orori emakume bat dagokio, bere zerbitzari-emazte-zaintzailea izango dena, soldatarik, eskubiderik eta jabetzarik izango ez duena. Kontrata heterossexuala eta misoginoa den heinean, helburua kontratu soziala haustea da.

Horretarako, eta ordena aldagaria eta paraleoa izanik:

2.-*Jakintza-praktika berriak asmatu*: “Ezagutzea” heterossexualki pentsatzea da. Heterossexualki pentsatu eta bizitzea “sexu” kategoriaren bidez mundua erdibitu, antolatu, ulertu eta sentitzea da. Humanitatea bere azal kolorearen, alua edo zakila izatearen arabera birstortzea. Mendebalder tradizio eta pentsamen duaren biolentzia sexual (eta arrazista) guztia esplizitatu behar da eta eskola publikoak, unibertsitateak, familiak, justizia-sistemak, medikuntzak, natur zientziak, eta, jakina, gizarte eta giza zientzia guztiek haragitzen duten misoginia sistematikoki teorizatu behar da. Adibide zehatza aurki dezakegu ekofeminismoan eta transfeminismoan, zehazki, Queer teorian.

3.-*Gizon-emakume klase politikoa desagerrarazi* egungo klase sozio-ekonomikoekin batera. Mobilizazioaren, protestaren, erakundetzearen eta politika publikoen bidez.

Emakumeak klase politikoa eta sozio-ekonomikoa dira, langileria bezala. Wittigek dioen moduan, emakumea ez da ospatu beharreko diferentzia, emakumea ez baita gizonarekiko diferentzia, mendekoa baizik.

4.-*“Sexua” kategoria politikoa desagerraraztea*: “arrazia” ez da kategoria biologikoa, politikoa bazik, “sexua” bezalaxe. “Arrazia” kategoria gizarte antolatzeko onartezina den bezala (bel-tzen esklabutza), onartezina bilakatu behar da “sexuaren” arabera antolatutako gizarte: patriarkatua (emakumeen esklabutza).

5.-*Demokrazia feminista*: Diziiplina- eta normalizazio-gizarteek (Foucault) sortzen dituen eskusio- eta esplotazio-mekanismoak identifikatu eta kontrolatzea izango da helburua, ahalik eta eskusio murriztena edo eragingarria egiteko, ahalik eta biolentzia txikiena eragina.

Despatriarkalizazio prozesu bat jazo behar da, eta estrategia anitzak daude horretarako: emakumeen parlamentua sortu legebiltzar mixtoarekin batera, mugimendu feministaren artikulazioa irmotu botereguneetan dauden feministekin (hedabideak, sindikatuak, enpresa, akademia, finantzak), mugimendutik at dauden emakumeen ahalduntzea, sindikatu eta alderdi-tako feministen aliantza hortik at dauden feministekin, e.a. Jakintza berriak sortu eta zabaltzeko (2. helburua), sexista boteredunei presio politikoa egin ahal izateko (3.-4. helburuak), lapurtu diguten autoritatea geureganatzeko, subjektu politikoa bilakatu eta geure buruaz

gain, geure herria, geure mundua gobernatzeko (1. helburua).

Emakumeak gobernatzen hasteko, ezinbestekoa da erabakimena lortzea, eta horregatik da proposamen honen muintetako bat emakumeek beto eskubidea edukitzea beren bizitza garatzen duten espazio guztietan.

Emakume eta gizonen arteko diferentzia, menderakuntza soziala, ekonomikoa, kulturala eta politikoa da, batzuek eta besteek duten eza-gutza-mailaren, diru-sarreraren edo baliabideen eta prestigioaren arabera da (ugazaba eta langileekin gertatu bezala).

Estatu demokratikoak berezkoak dituen mekanismoen bidez (eskola, justizia sistema, sistema fiskala eta produktiboa) birstortzen ditu diferentzia-esplotazioak (edo berdintasuna) klase sozio-ekonomiko eta politikoen artean. Estatuak, arrazistak eta sexistak goraitu eta babesten dituzte, baina arrazismoa eta sexismoa ez ditu estatuak sortzen, gizarteak sortzen ditu estatuak baliatuz. Desberdintasun horrek berebiziko garrantzia du, eta desberdintasun horretaz ondo jabetu ezean, alienazio egoera batean egongo gara. Estatu demokratikoa ez da gugandik aparte existitzen den entitate bat, estatu demokratikoa herri erakundetua da.

Horregatik, Euskal Estatugintza Feminista baten ikuspuntutik gakoa ez da nola deuseztatu estatua; kontrara, estatua nola erdietsi da gakoa. ■

ditugun prozesuak bultzatzeko eta bereizkeria topeak jartzeko. Eta zeharkatzen gaituzten zapalkuntza horiek iraultzeko boterea behar dugu. Dugun botereaz ohartu eta gehiago erabili, bederen. Eta ez dugunetan jabetu, hartu eta gauzatu, baduenari kenduta, akaso. Askok gara eta ideologikoki ederki jantzita, goazen bada, praktikara!

Ilunpetik argira: Botere harremanek zeharkatzen gaituzte, iraultza egin nahi dugunok ere bai. Baina boterea ezin da suntsitu, bai, ordea, eraldatu eta haren kudeaketa kontzientzia egin. Eta hura hartu eta eman daitekeen bezala, banatu eta sakabanatu ere egin dezakegu. Horretarako, egitura esplizituak, talde bizitzari begiratu eta funtzionatzeko irizpideak beharrezkoak ditugu. Botere mekanismo batzuk oso agerik dira. Beste batzuk, aldiz, ikusezinak edo nahita ezkutaturakoa. Baina botere forma guztietara eraman behar du ge-nuke argia, ilunpetik atera eta hauek orekatu zein adosteko prozedurak sortu: erabaki gu-neak eta parte hartzea arautu, pertsona er-referenteak zein, zenbat denboraz eta zertarako hitzartu edota hierarkiak erresolbitu. Mugimen-duen demokratizazioa bermatzeko egitura-tearen aldekoa naiz, eremu informalean indar

eta eragin gehiago dutenek beren hegemonia ezartzeko erraztasun osoa izan ohi dutelako.

Desio dugun boterea: 2014ko Ondarroa-ko topaketetan feminismotik eragiteko boterea behar genuela adierazi genuen. Baina horrek boterearen inguruko gogoeta sakonaren beharra mahaigaineratu zuen: Zer da boterea? Ze botere mota nahi dugu feminismoan? Nola kudeatuta? Lehenengo urratsa imajinatzea da, botere horren formak, irudiak eta hitzak asmatzeko, ezagutzen ditugun ereduak atzean utzita. Boterea, azken batean, hori litzateke, ez dagoena sortzea, sortzeko ahalmena izatea, sor-gin izatea. Bide horretan, hamaika galdera eta erantzun batzuk:

Dena eraldatzeko nahi dugu boterea feministok: botere harremanak, jabetza sistema, baliabideen banaketa, balioak e.a., errealitate berriak sortu eta bizitzako eremu guztietara ailegatuko den despatriarkalizazio prozesua bultzatzeko. Ez da betiereko egoera estatiko idealera eramango gaituen botere posizioa desio duguna. Mugimenduan, etengabeko eratze prozesu ez linealean, jendarte eta antolatutako mugimenduen kontradikzio eta indar

korrelazioaren arabera sokiaren dago gure botere(tze)a. Eskutik eskura pasa, transmititu eta txandatu dugun indar emaria da beraz. Ahalduntze kolektiboa ekarriko duen boterea aldarrikatu nahi dugu, hau da, gutxiagotu beharrean, gehitzen duen boterea: horizontala, herritarra, komunala izan litekeena. Herri-tarron auto-eraketa eta antolakuntzarako gaitasunean oinarrituta, dominazio logikari iskin egin eta boterea norekin, norentzat eta nondik adostutako bidea izan behar da.

“Kanpoari zein barruari” eragiten dion botere(tze)a da gurea. Herri feminista bat eraikitzeak behar diren erabaki eta botere guneetan eragiteko “kanporako” ahalmena da, hortaz, baina ez hori bakarrik. Gorputzen matxinadatik, desira emantzipatzailetik eta norbanakoarengan hasitako jarrera aldaketatik abiatzen den bidaia da. Boterea plazerarekin eta erotikarekin lotutako indar sortzailea ere badelako. Gorputz-makinaren ikuskera kapitalista gainditurik, gure gorputzak habitatu eta bere balio politikoaz jabetuta, gure erroko iraultzan bidelagun direnekin gorputz-komunitarioa osatzea litzake bidea. Gorputzen arteko aliantza eta babes binkuloak sortu. Zirkulatzen gaituen energiari heldu. Boteretu. ■

ESTATU (FEMINISTA) ERAIKUNTZAN



SANDRA BARRENETXEA DÍEZ

SOZIOLOGOA

Erdi xalotasunez, erdi ausardiaz, Aliziak Humpty Dumptyri zera iradoki zion, hitzek, finkatu eta instituzionalizatutako egiturak direnez gero, ezin dutela eduki nork bere apetaz eman nahi dien esanahia. Hala, arrautz itxurako pertsonaiak, autoritatearen ordezkari, esaldi famatua erantzun zion zorrotz: “kontua da jakitea nork agintzen duen”. Orduan konturatu ginen Lewis Carroll asmatu zuen ametsetako Herrialde Miresgarri hura, errealtatean, gurearen nahiko antzekoa zela.

Hain zuzen ere, Estatuaz hitz egiten dugunean, egia esan, edozein instituzio sozial ez hitz egiten dugunean, inguru sozial eta momentu historiko zehatzetan finkatu diren botere harreman eta praktiken inguruan ari gara hizketan. Estatu ariketa honen isla eta aktorea da, indar korrelazio horri sendotasuna eta zilegitasun soziala ematen dio eta denboran iraunkortzen du.

Krisi, aldaketa eta trantsizio sasoietan, ohikoa da itxuraz kontraesankorrak eta berez konplexuak diren gertaera sozialak aurkitzea, gertaera argi-ilunak, zeinetan, Gramsciren hitzetan, munstroak sortzen diren. Pare bat hamarkadetatik hona, prozesu sozialei zein bizi prozesuei, balio sistemei zein ordezkari politikoaren sistemari eusten zieten egitura sozioekonomikoak sakontze neoliberal prozesuan sartu dira. Sakontze neoliberal honek, jendarte industrial eta modernoaren instituzioak desegituratzeaz gain, gure bizitzak etengabe pobretzen eta prekarizatzen ditu, eta honek herriar multzo zabalei min, oinaze, heriotz eta zorigaitz handiak sorrarazten dizkie. Baina, honekin batera, arrakala sakonak eta ihes-lerroak ere sortzen ari dira eta honek aldaketa aukeretan pentsatzen laguntzen digu. Ikuspe-

gi feministatik, aldaketa aukerak honako Estatu eredua irudikatzen eta eraikitzen hastera garamatza, Estatu bat non: bizitzaren iraunkortasun eta zaintza zentroan kokatu den; instituzio, merkatu eta jendartearen arteko harremanak berregituratuko eta bizitzaren zaintzaz arduratuko diren. Honetarako, hainbat politika publiko burutuko dira: zaintzak eremu pribatutik ateratzeko; lan guztiak birbanatu, ikustarazi eta birbalioztatzeke, biziaren iraunkortasunari egiten dioten ekarpenaren arabera; behar besteko baliabideak bermatzeko, denok bizi autonomia izan dezagun. Azken finean, kapitalismo heteropatriarkalari eta berau sostengatzen duen eredu demokratikoari errotiko kritikan oinarrituko den Estatu.

Proiektu politiko emantzipatzailea gauzatzeko momentuan, argi dago politika publikoak kudeatzeko ahalmen eta gaitasuna daukaten instituzio publikoak sortzea funtsezkoa dela. Hala ere, ezinbestekoa da konturatzea hau ez dela elementu isolatua eta aldaketa behetik eta kanpotik bultzatu eta sostengatu behar dela, esperientzia sozialari zentzu kolektiboa emanda eta proiektu eta prozesu izaeraz politikoki artikulatuta.

Behetik eta kanpotik eraikitzea apostu estrategikoa da eta metodologia zehatza dakar berarekin batera, ezinbestez demokratizatzailea eta partizipatiboa izan behar dena. Izan ere, Estatu Modernoa bezalakoa ez den Estatu eraikitzeke, alde batetik, menpekotasun-menperatze dikotomia gainditu behar da eta, bestetik, instituzioak Kapitalaren zerbitzurako tresnak baino ez diren demokrazia hau, gero eta hustuagoa dagoena, “*demos*” delakoaz bete behar da. Honetarako, elkar-guneak zein eztabaida eta ekintzarako eremuak sortu beharko dira eta kalea indartu

beharko da proposamenak egiteko eta alternatibak sortzeko leku bihurtu dadin.

Puntu honetan, eremu instituzional eta eremu sozialaren arteko harremanaren inguruko eztabaida antolakuntza moduetatik harago doa. Egia esan, proiektu estrategikoa bera laburtzen eta adierazten du: Estatu pertsonekin eta pertsonentzat. Honela, Estatu feminista eta emantzipatzailea eraikitzeke ezinbestean eremu feministak sendotu behar dira, eremu hauen autonomia bultzatu behar da eta parte hartzea pertsonen eta, bereziki, emakumeen, bizitzeei, guneei eta denborei egokituko dela erraztu behar da. Aktore eta aktorea sozialak gertaeretan parte hartzen duten neurrian subjektu bihurtzen direla gogoratzea garrantzizkoa da eta, hortaz, guk geuk, emakumeok, prozesu hauetako protagonistak izan behar gara ezinbestean. Baina instituzioak ikusten ditugun modua ere berraztertu beharko dugu, proposamen eta ezagupen trukaketarako bideak ezarri ditzagun eta, era berean, aliantza berriak sor ditzagun, kaletik, instituziotik, gatazka, negoziazio eta adostasun eremua izan behar den politikatik aniztasuna artikulatzeko eta hau guztia finkatzen joateko.

Azkenik, ezin dugu ahaztu, politika, parte hartze, aliantza eta konplizitateaz gain, imajinario komuna ere beharrezkoa dugula, ikuspegi feministaz kapital eta biziaren arteko gatazka ikustaraziko duena. Praktiken inguruan informatzeaz gain, praktika hauek berreraikiko dituen diskurtsoa behar dugu, praktika berri hauek corpus pedagogiko bihurtu daitezen, kontaera emantzipatzailea ezartzen laguntzeko, eta hau sen berriaren hazia izan dadila, zentzuaren borrokan zilegitasun soziala arma bihurtzen den tokia apurka bete dezan. ■

Otsailaren 6an egin genuen mintegia ezinezkoa izango zen hainbaten esku hartzea eta laguntza izan ez bagenu.

Horregatik, hemen ere adierazi nahi dugu gure esker ona.

Eskerrik asko GITE-IPES elkarteak antolatu zuen jende guztiari, Ruben eta Iboni, itzultzaileei, interpreteei, partehartzaileei harrera egin zieten kideei, partehartzaileak antolatzen eta mikrofonoa gora eta behera aritu zirenei, Topatu-ko lagunei, Mireni, kotxe eta furgonetako ekipo osoari, hizlariei, ekarpena idatziz utzi dutenei, Gorka eta Iratxeri, mintegian egon zinetenoi, eta modu batean edo bestean bisitaldia eta ekimenak antolatzeko lagundu zeniguten guztiei.

Hitz gutxitan, horrelako bisita batek dituen aukerak eta mugak ezagun, jator eta eskuzabal lagundu diguzuen guztioi.

Mila mila esker!

Eskerrik asko,
Angela

